

"4.000ri
banatzen
dizkiegu
elikagaiak"

Jose Antonio Agirrebeña |
Bergarako elikagaien bankua | 6

San Silvestre
lasterketak
hiru herritan

Eskoriatzan, Oñatin
eta Bergaran egingo
dituzte | 28

Hasi dira auzo-konpost guneak
egokitzeko lanak Antzuolan | 24

Puntako bertso saioak egunotan,
Arrasaten eta Oñatin | 33

Ganbara Txikiren musikalean
'Altxorraren bila' jardungo dute | 31

'Holan' eta 'Merke' gertu Arrasateko santamasetarako

Egunero txabolatik ateratzen ditu ugazabak
txerriak, itxura osasuntsua eta naturala izateko | 13

Euskal arrazako bi txerriak Joseba Garitaonaindia ugazabarekin
Zalduspe inguruan, Arrasaten.

JAGOBA DOMINGO

Aretxabaletak eman du pausoa bizikleten eta oinezkoen herri izateko

Herri barruan bidegorria egokitu, espaloi zabalak utzi, oinezkoei lehentasuna eman... Laburbilduz, txirringularen, oinezkoen eta ibilgailuen arteko elkarbizitza garantizatzeko, obrak egingo ditu Aretxabaletako Udalak, segurtasuna oinarri izanda. Arkupen dago proiektua ikusgai. | 11

Abenduaren 22an
asteleneakoa,
abenduaren 26an
urtekaria eta urtarrilaren 9an
2015eko lehen zenbakia

Astelenean argitaratuko dugu
asteleneko Goiena-ren azken
zenbakia; abenduaren 26an etxean
jasoko duzue Debagoiena 2014
urtekaria; eta hurrengo GOIENA
urtarrilaren 9an (egubakoitza)
argitaratuko dugu. Urte
berri on!

DEBAGOIENA
2014
URTEKARIA

Urte berriak, egutegi berriak dakartza, asko bertakoak

Gure eskualdeko
merkatari, elkarte eta
udal askok ateratzen
dituzte halakoak,
esaterako | 2

Olentzero eta Mari Domingi, Debagoienera bidean dira zaku bete opari, umeendako eta nagusiendako

ikus 'Herriak' saila

SEAT LEON ST X-PERIENCE



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



SINADURAK



IDOIA
RAMIREZ DE OKARIZ | 7



LARRAITZ
ZEBERIO | 7



MIKEL
IRIZAR | 40

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 7 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Egutegiak, 2015eko bidea egiten laguntzeko

- Askotarikoak daude; bailarako merkatari, elkarte eta udalek ateratzen dituztenak, esaterako
- Urte berriari ongietorria emateko prest daude gehienak eta hainbat banatzen hasita ere badaude

IRATI GOITIA | ARRASATE

Abenduaren azkenetan gaude. Egutegiaren azken orrian. Eta dagoeneko prest dira 2015ekoak. Bailaran askotarikoak argitaratzen dira. Bergarako, Aramaio-ko eta Leintz Gatzagako udalek eurena ateratzen dute, adibidez. Badira baita herriko merkatari, ostalari eta enpresek ateratzen dituztenak ere. Ezaguna da Aran-

tzazuko Andre Mariaren egutegia ere. Eta gero eta ohikoa da nork berea egitea. Kuadrillan, lagunartean edo familian, adibidez. Denak ere urte berrian laguntza eskaintzeko eta hitzordu berrien kontua eramateko. Gehienak prest daude dagoeneko eta banatzen ere hasiak dira asko. Beste batzuk datozen egunetan iritsiko dira etxeetara.

Garai bateko argazkiez osatutakoa

Garai bateko argazkiez gozatze-ko aukera ematen du Debaguneko egutegiak. Bailarako euskara elkarteek eginikoa da. "Aurtengoan, ikus daiteke nola aldatu diren gure herrietako hainbat bazter. Izan ere, denon-

tzako ezagunak diren tokiak azaltzen dira orain dela hainbat urte", azaldu du AEDko Itxaro Artolak. Hamabi hilabeteetako orrialdeak pasa ahala, ikus daitezke, esaterako: 1955eko Aretxabaletako Andramaixak, 1954an Antzuolako herriko plazan dantzari eta txistulariak, 1915ean Eskoriatzako plazak zuen itxura eta Arrasateko Erdiko kalea XX. mende hasieran.

Urtero osatzen dute euren egutegia argazki zaharrez, eta horretarako artxiboetara jotzen dute: "Herri batzuetan oso artxibo aberatsak dituzte eta badago zer topatu. Egia da denborarekin gero eta zailagoa dela ez erreplikatzea. Izan ere, urte asko dira lehenengoa atera genuela. Imaginatu, nik hogeitau urte daramatzat hemen, eta betidanik ezagutu izan dut". Partikularrak ere badi- ra euren irudi iturri: "Herrietan izaten dira argazkigintza zaletuak edo bildumak egiten dituztenak. Horiek ere laguntza handia izaten dira".

Euskara elkarteetako bazkideen artean banatzen dute egutegia: "Gure helburua izaten da detaile bat izatea gure bazkideekin urte osoan zehar ematen diguten babesarengatik", adierazi du Artolak. Denera, 2.125 inprimatu dituzte aurtengoa. Eta bazkideentzako bai, baina ez direnek ere eros dezakete euskara elkarteetan. Bestalde, Antzuolako, Eskoriatzako eta Arrasateko udalek ere erosten dituzte hainbat.

Baserrietatik kalera

Abenduaren 24an, Leintz Gatzagako herriko haur eta gurasoak kantuan irteten dira baserriz baserri, eta Udalak prestatzen duen egutegia banatzeko aprobetxatzen dute. Orain dela hamaika urte inguru ekin zion Udalak egutegia egiteari. "Erabaki genuen herritarrei oparitzeko zerbait egin genezakeela, eta iruditu zitzaigun egutegia ideia ona zela", azaldu du Jon Sasiain orduko Kultura zinegotziak. Hala, herriko bi baserri azaltzen ziren egutegia argitaratu zuten. Hurrengo urtean, beste saiakera bat egin zuten: "Beste zerbait egitea erabaki genuen, eta agenda txiki bat oparitzea adostu genuen. Bertan azaltzen ziren herriko telefono zenbakiak, larrialdietakoak, udaletxekoak, jatetxeetakoak... Ez zen arrakastatsua izan, ordea. Eta hala, hurrengo urtean berriro ere atera genuen egutegia". Ordutik hona, beti izan dira egutegiko motibo herriko bi baserri. "Pozik nago izan genuen ideia hark aurrera segitzen duelako", dio Sasiainek.

"Urtetan baserriak ateratzen ibili ostean, gure azkeneko urte honetan aldaketa egitea pentsatu dugu eta Leintz Gatzagako paisaien eta txokoen bidez osatu dugu", kontatu du Iñaki Agirreurreta egungo Kultura zinegotziak. Horrela, Gatz Museoko argazki bat eta Pilar kaleko beste bat azaltzen dira, Agirreurretak berak ateratakoak. Guztira, 150 ale argitaratuko dituzte. Urteroko ohitu-



Hyundai ix35

15.190€-tik

5 urte mantentze-lanak barne

OARSO CAR

GIPIZKOAN DEALER BAKARRA
www.oarsocar.com



OIARTZUN
943 49 48 30
Lintzirin poligonoa, 1
(Leroy Merlin ondoan)

BEASAIN
943 80 40 54
Errepide nagusia
(Hotel Castillo ondoan)

ELGOIBAR
943 74 14 80
Olaso poligonoa, 17

IRUN
943 63 97 69
Behobia zubia



Jose Garai eta Imanol Bikuina, iazko egutegiaren aurrean. | I.G.



Leintz Gatzagako egutegiko argazkietako bat, Gatz Museoa. | I. AGIRREURRETA

rari jarraituz, Gurelen Gabon eskean banatuko dute, Gatzaga-ko umeek egindako gatz-potetxo batekin batera.

Euskara bultzatzeko

Aramaioko Udalak ere ateratzen du egutegia. Arrakastatsua, gainera. "Banaketa hasi eta lehenengo egunetan agortzen dira", esan du Rosa Mondragonek, Euskara teknikariak. 900 ale banatuko dituzte –atzo hasi eta martitzenera arte banatuko dituzte.

2000. urtean atera zuten lehenengoa: "Euskara Zerbitzutik sortu zen ideia eta helburua izan zen Aramaioko etxeetan euskara hutsean idatzitako egutegia izatea. Izan ere, orain, urteak pasa diren heinean, aukera gehiago daude euskarazko egutegiak bilatzeko, baina ez da horrenbeste denbora ele bitan edo erdaraz bakarrik izaten zirela. Sorrerako helburu hori mantentzen da egun; baina izan duen arrakasta ikusita, Udalak horren aldeko apustua egin du". Esaera zaharrak, herriko jaiak, telefono interesgarriak, zaborra noiz jasotzen den... biltzen ditu egutegiak. Hein batean, batzen du herriko informazio praktikoa.

Argazkiak, berriz, Aramaioko Udalak urtero antolatzen duen argazki lehiaketatik hautatzen dira. "Lehen urteetan hemendik eta handik hartzen ziren, edo herriko argazkilariei eskatu. Ondoren, prentsatu genuen ondo

egongo zela beste batzuei parte hartzeko aukera ematea. Hala, argazki lehiaketa antolatzen hasi ginen". Aurtengo irabazlea Iker Aizkorbe izan da –beheko argazki bilduman dago ikusgai.

Merkatariek eginikoa

Aretxabaletako Aretxarte merkatari elkarteak lehendabizikoz kaleratu du aurten egutegi propioa. Eta merkatariaiek eurak dira protagonista. "Tuterako merkatariek ateratako egutegiaren argazkia jaso nuen. Biluzik azaltzen ziren. Eta orduan pentsatu nuen: eurek egin badute, guk zergatik ez? Noski, baina gure erara. Hala, Aretxarteko 45 bazkideok animatu eta geu azaltzen garene egutegia egin dugu", azaldu du Aretxarteko presidente Idoia Elexpuruk. Urtarrilean eta abenduan tabernariak azaltzen dira elegante-elegante jantzita, abuztuan merkatariaiek auto klasiko batekin edo uztailan sukaldean arrain eta guzti. Argazkiak herriko bi argazkilarik atera dituzte: Ivan Vallek eta Ane Idigorasek. "Lan handia eskatzen du, baina polita izan da egiteko eta pozik gaude emaitzarekin", esan du Vallek. Elexpuruk gaineratu du oso *aretxabaletarra* dela: "Dena egin dugu herrian. Inprimatu ere bertan egin dugu. Eta zehazten dira herriko eta auzoko jaiak eta *Ixa debalde* egunak, adibidez. Atzealdean daude, berriz, elkarteko establezimendu

guztien helbideak eta telefono zenbakiak. Espero dugu etxe askotako sukaldeetan zintzilik ikustea". Denera, 2.600 ale atera dituzte –merkatari bakoitzak 55 banatuko ditu.

Adineko pertsonen nortasuna, iruditan

Oñatiko adineko hamabi pertsona harrapatzen ditu bere kameراز Josu Garaik urtero-urtero. Izan ere, hark ateratzen ditu Zolarriren egutegian azaltzen direnen argazkiak. "Bezeroentzako zerbait berezia egin nahi genuen", esan du Zolarriko Imanol Bikuinak. Eta Garaik kontatu du nola ekin zioten proiektuari: "Nik banuen herriko nagusiekin zerbait egiteko gogoia eta Imanol egutegia atera nahi zutela esanez etorri zitzaidan; beraz, nire ideia proposatu nion eta gustatu egin zitzaion. Ordutik hona, hor gabilta". 80 urtetik gorakoak edo inguru horretan dabiltzanak erretratatzan ditu Garaik: "Euren izaera islatu nahi izaten dut argazkietan. Adibidez, lanbidearekin loturatxo bat egin edo, baserritarra bada, baserri inguruarekin. Hein batean, euren nortasuna adierazten saiatzen naiz". Gaineratu du nagusiei eginiko omenaldia dela egutegia. "Askotan, gogoratu ere ez gara egiten nagusiak hor daudela", dio. Eurei eginiko omenaldi izan arren, dio askok atzera egiten

dutela: "Esaten didate 'ni zergatik?' edo 'ni ez naiz inor', esaterako. Horiek izaten dira euren lehen berbak. Baina guk herriko jendea atera nahi izaten dugu, jende xumea. Beraz, esango nieke ez daitezela beldurtu. Hau omenaldia dela".

Urte berriari ekin bezain laster hasten dira zerrenda luze bat egiten azaldu daitezkeen izenekin, baina oñatiarrak dio hori estutuaz joaten dela, askoren ezezkoe ostean. Zehaztu du, gainera, beti ibiltzen direla emakume faltan. Hala ere, izaten dute laguntza: "Badugu bitartekari lanak egiten dizkigun bat: Jexux Igartua. Izan ere, ez zaituztenean ezagutzen, are eta zailagoa izaten da. Beraz, beti dago ondo ezagutzen duten norbait jartzea tartean. Eta egia esan, Jexuxek bidea asko errazten digu eta eskerrak eman beharrean gaude".

Lehen urtean 250 ale atera zituzten; aurten, 300. "Egutegia da bezero bereziei emateko. Euren fideltasuna saritzen dugu. Gustura egiten dugu eta asmoa da egitea hamar urtez, behintzat", esan du Bikuinak

Arrasate, argazkilari baten begiradatik

Arrasate hainbat argazkilariren begiradatik islatzen du Kajoi tabernak, AGT enpresak eta Jose Ramon Otamendi harategiak elkarrekin ateratzen duten egutegiak.

Aurten, Anibal Carmonaren ikuspegia batzen du. "Lehen urteetan neronek atera nituen argazkiak, baina garrantzia eman nahi genion proiektuari. Hala, argazkilaritza gustuko duten herritarrekin harremanetan jartzen hasi ginen eta urtero argazkilari baten begitatik islatzen dugu Arrasate. Parte hartu dute, adibidez, Antonio Baenak, Joxe Felix Diaz de Tuestak, Koldo Garrillok eta Aritz Gordok. Denek ere doan eman dizkigute euren irudiak eta denek izugarrizko lana egin dute", azaldu du Antonio Murillok, Kajoi tabernako jabeak. Argazki guztiek Arrasatekoek izan behar dute, hori da baldintza: "Badira bankuetakoek ateratakoak, adibidez, baina guk gure herrikoa nahi genuen. Esaterako, aurten Anibal Carmonak atera ditu argazkiak, eta nabaritzen da ikuspuntu berezia dutela. Irudietan jartzen duen maitasuna nabaritu egiten da. Oso zaila da halako egutegi bat herrikoa ez den norbaitek egitea".

Bestalde, Murillok gaineratzen du asko zaintzen dutela kalitatea: "Diseinua asko zaintzen dugu. Horretaz gain, guretzako garrantzitsua da herritarrek erabilera ematea egutegiari. Hala, oharrentzako tokia dago, esaterako. Eta jaiak, ilargiak eta tenporak zehazten dira". Egun, 1.750 ale ateratzen dituzte eta bezeroen artean banatzen dituzte. "Ez dugu publizitategatik egiten; baizik ikusten dugulako jendeak asko eskertzen duela", esan du Murillok.



Dantzariak eta txistulariak Antzuolan 1954an (Debagune). | IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ



Antonio Murillo aurtengo egutegia eskuetan duela, Kajoi tabernan. | I.G.



Iker Aizkorberen Behelainoz dator egunona argazkia Aramaioko egutegian azalduko da. | IKER AIZKORBE



Aretxarte merkatarien elkarteak ateratako egutegiaren abuztuko orrialdea. | IVAN VALLE



Maite Ilarduia eta Xabi Betzuen, lekukoa eskuetan dutela. | IRATI GOITIA

Korrika antolatzeke herri batzordeak, urtarrilean

IRATI GOITIA | DEBAGOIENA

Martxoaren 19an hasiko da 19. Korrika, Urepelen, eta martxoaren 29an amaitu, Bilbon. Debagoienetik martxoaren 23an pasako da. Oñatitik sartuko da eta Elgetatik irten. Tartean zehar, katuko ditu Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergara (Uberan gora. Bada, dena prestatzen hasteko, urtarrilean egingo dituz-

te lehen herri batzordeak eta AEK-tik herritarrak animatu nahi dituzte parte hartzera. "Nork bere neurrian egin dezala: batzordeetara etorrita, ekintza kulturalak antolatuta edo kilometroa erosita", esan du Maite Ilardui Iztuetak, Debagoieneko Korrikaren dinamizatzaileak. Aurtengo leloa Euskahaldundu da eta omen-dua, Durangoko Azoka.

HERRI BATZARREN HITZORDUAK

Urtarrilaren 12an, Oñatin, kultura etxean. 18:30ean.

Urtarrilaren 13an, Bergaran, kultura etxean. 18:30ean.

Urtarrilaren 13an, Aretxabaletan, Loramendi Elkartean.

Urtarrilaren 14an, Eskoriatzan, kultura etxean. 18:30ean.

Urtarrilaren 16an, Elgetan, liburutegian. 18:30ean.

Urtarrilaren 16an, Leintz Gatzagan, elkartean. 18:30ean.

Urtarrilaren 19an, Arrasaten, Kulturaten. 18:30ean.

Urtarrilaren 20an, Aramaion, kultura etxean, 18:30ean.

Urtarrilaqren 21ean, Antzuolan, kultura etxean, 18:30ean.

ARIZMENDI, KOOP. E.AREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozietako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2014ko azaroaren 27an egoitza sozilean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E-ko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

EGUNA: 2015eko urtarrilaren 15a.

LEKUA: Arimazubi guneko aretoa (Arrasate).

ORDUA: Lehen deialdia: 18:00. Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkide izendatzea.
2. 2013-2014 ekitaldiko zuzendaritza-txostena aurkeztea, eta hala balegokio, onartzea.
3. 2013-2014 ekitaldiko sozietate-kudeaketa eta Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-orria, Diru Fluxuen Egoera-orria eta Txostena), eta baita Kudeaketa-Txostena ere, aztertzea, eta hala balegokio, onartzea.
4. 2013-2014 ekitaldiko emaitzak banatzea.
5. 2014-2015 ekitaldirako helburu nagusiak eta aurrekontu ekonomikoa aurkeztea.
6. Kontseilu Errektorea berritzatzea.
7. Zaintza Batzordea berritzatzea.
8. Kontseilu Soziala berritzatzea.
9. Kontseilu Errektorea ahalduntzea Batzar Nagusian Hartutako erabakiak egikaritzeko.
10. Galde-erantzunak.



Jokin Mujika Dorronsoro
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
Arrasate, 2014/11/27

Akusazioa erretiratu egin diote Plazaola bergararrari

JON BEREZIBAR | BERGARA

Auzitegi Nazionallean egiten ari diren gazte independentisten aurkako auzian, Plazaola *Xibo* bergararrari eta beste hamaika auzipeturi akusazioa erretiratu die fiskalak.

Martitzeneko saioan, edozelan ere, Espainiako Poliziak berretsi egin zuen aurkeztutako txostenaren arabera auzipetuak Segi erakundeko kide zirela. Tortura salaketei dago-kienez, Istanbulgo protokoloak ezarritako prozesua gaingitu eta gero, egiazkotzat jo ditu defentsaren peritu taldeak akusatuen lekukotzak. Izan ere, Espainiako Poliziak atxilotutako auzipetu guztiek salatu dituzte torturak, eta horrek pisua izan du erabakian.



Aitziber Plazaola. | GOIENA

Hondakin bilketan aldaketak jaiegunetan

U.M. | DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateak erabiltzaileei jakinarazi die hondakinak biltzeko zerbitzuan aldaketak egongo direla Gabonetan.

Herririk herri

Abenduaren 24an eta 31n, Antzuolako hondakin organikoak 13:30erako atera beharko dira. Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Oñatiko ontzi arinak jasotzeko zerbitzua, berriz, eguerdian egingo da, eta ontzi arinen hondakinak 13:30erako atera beharko dira.

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, berriz, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Arrasaten ez da izango kartoi komertziala jasotzeko zerbitzurik; zapatukoa izango da jasotzeko hurrengo eguna. Eta Eskoriatzan, Aretxabaletan, Oñatin eta Bergaran ez da komertzioetako hondakin organikoak jasotzeko zerbitzurik egongo; zapatukoa izango da jasotzeko hurrengo eguna.

TOKIKO MERKATARITZAZ



Mari Karmen Gallastegi, Jakiundeko kidea. | JAKIUNDE

Mari Karmen Gallastegi | Jakiundeko kidea eta EHUko katedraduna

"Tokiko merkataritza da EAEko enpleguaren %14"

EHUko katedradunak uste du garrantzitsua dela homogeneizazioaren mende ez egotea

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Mari Karmen Gallastegi Zulai-ka (Bergara, 1945) EHUko Teoria Ekonomikoan katedraduna eta EHUko Ekonomia Publikoaren Institutuko zuzendaria da. Horrez gainera, Jakiundeko kide ere bada. Gallastegik ere argi du tokiko merkataritza osasuntsu baten garrantzia. **"Merkataritza librea guztiondako ona izateak ez du esan gura desorekaren bat ez duenik sortzen (...)** Globalizazioak guztia lortzen duela ez dugu beste barik onartu behar. Erregulazio publikoren bat ere behar du". **Pentsatzen dut zure baieztapen horrek erreferentzia ere egiten diola globalizazioak tokiko merkataritzan sortzen duen desorekari...**

Baieztapena da globalizazioak edozein jarduera ekonomikotan duen eraginari buruz. Enpresen eta jarduera ekonomikoen deslokalizazioa nabarmen handitu zen globalizazioarekin. Tokiko merkataritza dagokionez, berriz, nabarmenduko nuke oso zaila izan zitzaiola berezko espezifikotasunak mantentzea, globalizazioak esparru geografiko desberdinetan saltzen diren produktuak homogeneizatzeko joera duelako. Ia mirakulua da oraindik funtsezko desberdintasunak mantentzea 16.000 bizilagun dituen Galesko herri batean eta tamaina bereko euskal herri batean saltzen diren produktuen artean. Uste dut homogeneizazioaren mende ez egotea garrantzitsua dela.

Globalizazioak tokiko merkataritzan eragindako desorekak ze puntutan eragiten du gure udalerrien bizitzan?

Tokiko merkataritzak jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzen ditu. Gainera, hiri txikien bizitzarako ezinbesteko euskarria da. Eta haren gabeziak edo dinamismorik eta berrikuntzarik ezak herrien bizitzaren dinamismoaren eta bizitasunaren galera, bizi-kalitatearen hondatzea eta jarduerarik eza dakartza.

Zelan gauzatu beharko litzateke erregulazio publikoa tokiko mer-

kataritzan?

Behin onartuta tokiko merkataritzaren garapena hiriendako/herriendako balioa dela, egin beharrekoa da elkarlan publiko-pribatuak lortzeko moduak bilatu, merkataritzaren kudeaketa, haren produktibitatea eta haren berrikuntza hobetuko dituztenak, eta marjina komertzialak handitzea. Aurten, Eusko Jaurlaritzak herriarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak landu ditu, tokiko merkataritzaren balioez eta haren garrantziaz kontziente izan gaitezen. Ahizpa eta biok hezi gintuzten erakusten behar genuen guztia Bergaran erosi behar genuela, gure herrian, baita Bilbora ikastera joan ginean ere. Gure familian beti izan dira tokiko merkataritzak bizirauteko aukera bultzatu eta babestearen aldeko. Saltoki baten itxiera galera handi moduan ikusten zen. Eta gaur egun, oraindik orain, uste dut askok horrela bizi dugula. Lokalak itxita ikusteak pena handia ematen du.

Ze garrantzi maila du tokiko merkataritzak ekonomia orokorrean?

Eusko Jaurlaritzaren datuek diote tokiko merkataritza dela Euskadiren BPGren (Barne Produktu Gordina) %11,33 eta enpleguaren %14. Tokiko merkataritzak 77.000 lagun ingururendako lanpostuak sortzen ditu eta fakturazioa, berriz, urtean 32 milioi euro da. Oso kontuan hartu beharreko kopuruak dira. *Small is beautiful* (txikia ederra da) ekonomialari ingeles baten esaldia da (saltoki txikien gainekoa da, ez mikroekonomiaren gainekoa), eta balekoa izan liteke esan gura dudana adierazteko.

"77.000 lanpostu inguru sortzen ditu merkataritza txikiak urtero"

Elkartasuna "zorrotzagoa" izango da aurrerantzean Mondragon taldean

Azken zortzi hilabeteetan egindako hausnarketaren ondorioak aurkeztu dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Mondragon Taldeak azken zortzi hilabeteetan egindako hausnarketa prozesuaren ondorioak aurkeztu zituen astelehenean Donostiako Kursaalaren egindako kongresuan. Etorkizunari begira kontuan hartu beharreko ildoan artean, balio kooperatiboen, lehiakortasunaren eta gizartearekiko konpromisoaren garrantzia azpimarratu zituzten, besteak beste.

Mondragon taldeko presidentea berri Javier Sotilek estreinako hitzaldia egin zuen. Mondragoneko kooperatibek proiektu

"sendo eta lehiakorragoak" izatearen garrantzia azpimarratu zuen Sotilek, epe luzearako "iraunkortasuna eta enpleguaren sorrera" bermatzeko.

Elkartasun "zorrotza"

Dokumentuan proposatzen diren aldaketa nagusiei dagokienez, "elkartasun zorrotz eraldatzailea" aipatzen da, dibisioen protagonismo handiagoa ekarriko duena kooperatibetan lehiakortasun arazoak aurreikusteko, eta erakunde korporatiboen eskakizun eta zorrotasun handiagoa funtsak



Mondragon Taldearen 2014ko kongresua. | MONDRAGON

esleitzeko. "Elkartasun zorrotzagoa izango da, egiazki egoerak aldatzen eta denboran luzatzen ez uzten lagunduko duena", adierazi zuen Sotilek. Dokumentua aurkeztu eta gero, hemendik aurrera eztabaida kooperatibetara eramango da, edukietan parte hartzeko fase zabal eta sakona irekiz, hurrengo kongresuan

hainbat ponentzia aurkeztuz amaituko dena, Mondragonen etorkizuneko erronkak zehazteko. Bestalde, Javier Goienetxea izendatu zuten Batzorde Iraunkorreko eta Kongresuko lehendakari.

Kooperatiba berria eratu dute

Lehenengo Fagor Etxetresnetako zuzendaritzak eta Mondragon

Taldeak kooperatiba berria eratu dute: Udalaiz S. Coop. Fagor hartzekodunen konkurtsoan sartu zenean, desagertu egin zen kooperatiba moduan. Hala, beste kooperatiba batzuetan behin-behineko lanean dauden bazkideei soldatak ordaindu ahal izateko kooperatiba da eratu dutena, instrumentu funtzioa egingo du.

Sortutako arazoei irtenbidea emateko exijitu diote Eskuratuk eta Ordainduk Mondragon Taldeari

A.E. | ARRASATE

Astelehenean Mondragon Taldeak egin zuen kongresua aprobetxatuz, Eskuratu eta Ordaindu plataformek kale agerraldia egin zuten Donostiako Kursaal aurrean. Mondragon Taldeko ordezkariak kongresura sartu arte egon ziren zain, eta ondoren manifestazioa egin zuten Donostian.

Kaltetuen plataformek negoziatzia "exijitzen" diote koopera-

tiba taldeari, eta, gainera, gatazkak ez direla konpontzen "agintarekin" diote.

"Egia erdiak" direla diote

"Ez dugu onartuko egia erdiek eta komunikabideen erabilerak kooperatibismoak berezkoak beharko lituzkeen egia, justizia eta izaera demokratikoa ilunaraztea", salatu dute. Arazoei irtenbidea ematea eskatzen dute.

Basauriko Edesan 2015ean hasiko dira lanean, baina urte amaieran Debagoienara ekarriko dute ekoizpena

CNA Groupek -Fagor Berria- Edesako termoak ekoizteko irekiko du Basauriko lantegia 2015eko urte hasieran. Urte amaieran, ordea, ekoizpena lekuz aldatzea aurreikusten du CNA Groupek, Basauriko lantegiak eragiten dituen kostuengatik. Oraindik ez dute erabaki nora ekarriko duten ekoizpena, baina Galagartza Electrodomestico-seko zuzendari nagusi Francisco Martinek esan du Bergarara edo Garagartzara eroango dutela ekoizpena.

Zabaldu zure etxea

Irabazi segurua

900 251 251
www.aioikabide.euskadi.net

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**



JULEN IRIONDO

Urtarrilera arte atzeratuta

Auzitegi Gorenak urtarrilera atzeratu du Alberto Plazaolari eragingo liokeen erabakia. Manifestazio jendetsua egin dute Oñatin asteen.

Jose Antonio Agirrebeña | Bergarako elikagaien bankuko arduraduna

"Iaz lortutakoa bikoiztu egin dugu elikagaien bankuko kanpaina"

- ▶ 180.000 kilo elikagai jaso dituzte abenduan
- ▶ "Boluntarioak behar ditugu jakiak sailkatzeko"



Jose Antonio Agirrebeña Bergarako elikagaien bankuan. | ENEKO AZKARATE

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Bergarako San Juan auzoan dagoen elikagaien bankuko arduraduna da Jose Antonio Agirrebeña. 2011n ireki zuten eta urte-tik urtera hazten doa bertatik pasatzen den elikagaien kopurua. Inguruko supermerkatuetatik jasotzen dituzte jakiak, eta, sailkatu ostean, premia dutenei banatzen dizkie, udalen edo giza erakunde bitartez. Azkeneko kanpaina 180.000 elikagai kilo jaso dituzte duela hiru aste.

Lanez gainezka zaudete orain Bergarako elikagaien bankuan, ezta? Bai, hala da. Hil hasieran egin genuen kanpaina berezian uste genuena baino askoz ere gehiago etorri da. Aurreikuspenak gainditu ditugu. 140.000 kilo elikagai batu genuen. Gainera, beste 40.000 kilo espero ditugu. Orotara, hortaz, 180.000 kilo jaso ditugu Bergaran, eta Gipuzkoa osoan 500.000 kilo inguru. Iazkoaren bikoitza ia.

Elikagai hori guztia sailkatzeko nahiko lan. Jende beharrean zaudete?

Bai; bereziki, oraingo astea Gabon jaien aurrekoa izanik, dena aurreratu nahi izan du jendeak eta elikagaiak jasotzera etortzen diren elkartei, udalei eta erantzuteko jende beharra izan dugu.

Zenbat jende zabiltzate lanean? 50 bat boluntario, orotara. Egu-

nero, batez beste, hamar bat lagun egoten gara hemen. Erretiratuak gara gehienak, baina jende gaztea ere badator: ama-semeak... Eskualde osoko jendea dabil atzera eta aurrera.

Zer egin behar da boluntario izateko?

Gurekin harremanetan jarri. Bergarako San Juan auzoan gaudete eta haxe da gure telefonoa: 943-76 21 90. Laguntzeko prest dagoena ondo etorria izango da. **Jendea, familiak... banaka etortzen zaizkizue elikagaien bankura?**

Hasieran bai; orain ez. Baina guk ezin diogu jendeari zuzenean eman. Horretarako daude udalak, elkarteak, Caritas eta halakoak. Izan ere, kontrol bat behar du

honek. Esaterako, udal batek daki elikagai eske datorrena herrian erroldatuta dagoen edo ez, laguntzarik jasotzen duen edo ez, zer laguntza mota jasotzen duen...

Zergatik izan da horren arrakastatsua azken kanpaina?

Urtean kanpaina berezi bi egiten ditugu: bata, oraingoa, Gabonen aurrekoa, eta bestea udan, ekain inguruan. Azken bi urtetik hona, ordea, erabaki da banku guztiek aldi berean egitea kanpaina: bai hemengoek eta baita Espainia-koek ere. Denak batera eginda arrakastatsuagoa da. Izan ere, hedabideetan oihartzun handiagoa ematen zaio, eta, horrenbestez, mezua errazago eta indartsuago heltzen da herritarren-gana.

Beti izan ohi da horrela Gabon sasoiak?

Azkenaldian, gehiago jasotzen gabilta. Begira, 2011n ireki genuen Bergarako elikagaien bankua eta urte hartako apirilean egin genuen lehen banaketa. Oiar-tzunen dago beste bankua Gipuzkoan, baina beste bat irekitzeko premia ikusi zen, eta hala ireki zen Bergaran, kokapenarengatik toki egokiena zelakoan. 2011ko lehen banaketan, zortzi erakunderen bitartez, 282 laguni banatu zitzaizkien elikagaiak. Gaur egun 35 bat erakunderi ematen

diegu zerbitzu eta 4.000 bat laguni banatzen zaizkie elikagaiak Bergarako bankutik.

Ze eratako elikagaiak dira?

Bi modutakoak: batetik, azkar iraungitzen ez direnak: pasta, arroza, lekaleak, olioak... Hilean behin egiten da banaketa elikagaien bankuaren bidez. Gero, badago beste elikagai mota bat, iraungitze data azkarrekoa, freskoa: barazkiak, frutak, jogurtak... Horri azken minutukoa deitzen diogu eta inguruko supermerkatuetatik jasotzen dugu, astero erronda eginda.

"Herritarra oso sentibera da eta elkartasunez jokatzeko du"

"Gipuzkoako Foru Aldundiak 120.000 euro ematen dizkigu urtero"

Euskal Herrian zenbat elikagaien banku daude?

Gipuzkoan bi daude, esandako moduan: Oiartzunen eta Bergaran; Bizkaian, Basaurin; Araban, Gasteizen; eta Nafarroan, Iruñean.

Krisiak zelan eragin du?

Alde batetik, igarri dugu elikagai hartzaileen kopuruak gora egin duela. Eta ikusten da inguruko lurraldeetatik eta hona hurbiltzen ari dela jendea, Gipuzkoan laguntza gehiago ematen zaielako benetako premia dutenei. Eta, bestetik, ikusi dugu herritarra oso sentibera dela gaiarekiko, eta elkartasunez jokatzeko du. Horren erakusle da azken kanpainak izan duen erantzuna.

Erakunde aldetik laguntzarik jasotzen duzue?

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin akordioa eginda daukagu, urtero sinatzen duguna. 120.000 euro jasotzen ditugu urtero eta horrekin egiten diogu aurre hainbat gasturi: pabiloiaren errentari, argindarrari, gasolioari, furgonetari, eta abarri. Beste erakunde batzuekin ere egiten ditugu akordioak eta lortzen ditugu furgonetak eta. Edota enpresa eta norbanakoen partetik jaso izan dugu dirua...



NISSAN PULSAR BERRIA 13.900 €-tik aurrera.

ZURE KOTXE BERRIA. ZURE ARIMA BIKIA.

PROBA EZAZU ORAIN.



GAURSA

Otaola hiribidea 22 - Eibar

Tel.: 943 82 09 74

www.gaursa.com

Kontsumo mistoa: 5,0 l/100 km. CO₂ jaulkipenak: 117 g/km. Prezio gomendatua Penintsularako eta Balear uharteetarako. Barne hartzen ditu: PFF, garraioa, Nissan Assistance, promozio deskontua, PIVE Plana, BEZA eta IEDMT (agian, Espainiako merkatuan, zure autonomia erkidegorako ez da aplikagarria). Partikularrentzat eta autonomoentzat baliagarria den eskaintza, Nissan Pulsar Visia 1,20G T1115ZP (85kW) eskuratzen duenarentzat, eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat trukean emanda eta Magic Plan RCI Banque SA bankuarekin finantzatuta (Espainiako sukurtsala). 24 hilabeteko gutxieneko iraunkortasunarekin, gutxienez 6.000 € finantzatuta. Hilabete edo PIVE plana amaiera arte balioko eskaintza, lehenengo gertatzen dena. Ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin. Informazio zabalagoa, Nissan Gaurisan. Ikusten den modeloa: Nissan Pulsar Tekna Premium.

ZABALIK

IDOIA RAMIREZ DE OKARIZ

goiena.eus/komunitatea/



Pastel euskaltzaleak

Agunek abestien friki bat naizela diote, melodia bat entzun eta berehala dakidala abestiaren letra; ez daki-tena da erdia, gehienetan, asmatu egiten dudala. Baina bai, egia da, nik ere Ken7 asko entzun nuen, *Ilargia* abestia begiak itxita abestu nuen, eta bai, neuk ere ikusi nuen Arrakasta Operazioa (*Operación Triunfo*). Eta *Van Gogh*en *Belarria* abestuz, eta asmatuz, belarri asko itxiarazi nituen, ongi abestu ahal izateko ez baita nahikoa nahi izatea.

Nahia, horixe da azkenaldian behin eta berriz erabiltzen dudan hitza. Aitzakia asko jarritz aukeraketa bat justifikatzen saiatzen garen guztietan ezku-tuko arrazoa berbera izaten da, nahieza edo nahia. *Ilargia* abestia oihuka abestea nahia zen. *Van Gogh*en *Belarria* entzutea moda izango zen, agian, baina baita nahia ere, eta momentu hartan gazteleraz abestea aukeratzen nuen.

Azoka egunetan lauburudun Euskal Pastelak gazteleraz sal-tzea aukeraketa da; zein da horren nahia? Benito Lertxundiren hautua, berriz, euskaraz abestea izan da. Zertarako? Gainontzekooi, euskara entzutean oilo-narrua jartzeko eta hizkuntza bat ahoan eramateaz gain bihotzean eramateko.

Hizkuntza bihotzean daukagula ezin ukatu, horrela adieraz-ten dugu diskurtsoetan, ikurretan, folklorean, futbolean, pastel euskaltzaleetan... Baina ez, ez nago ados. Hizkuntza bat biho-tzean eramateak ez dauka zentzurik hau ahoan eramaten ez bada, idazten ez bada, abesten ez bada.

Norberaren nahia euskaraz bizitzea bada, euskaraz biziko den Euskal Herri batean bizitzea, momenturo lehen hitza euskaraz egitea izan beharko da aukera, hautua, erabakia. Bankuan zein tabernan, Tuteran zein Tolosan, barazki zein pastel artean, heldu zein haurrekin, txakur eta katuekin jolasean, umorean, maitasunean, haserrean... Euskararen herria bada, izatea eta izaten jarraitzea bakoitzaren aukera da.

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.eus

Egunero galdetzen du

Urtea da gurekin zaudela. Zuk eskaintzen dizkiozu amonari guk eskaini ezin dizkiogun zaintza eta denbora. Orain, Gabonak direla-eta hilabeterako joan zara jaiak eta urte berriaren etorrera etxekoekin pasatzera. Mere-zitako oporrak, zalantza barik. Amonak, bien bitartean, egunero galdetzen du non zauden. Nahastuta dauka burua, eta seguru-
enik ahaztu egiten du egunero jasotzen duen erantzuna: "Etxera itzu-li da, amona, Gabonak senitartekoekin pasatzera. Laster itzuliko da". Ahazten ez duena zure falta da; izan ere, biharamunean berriz galdetuko du non zauden. Zure lekutxo-
a egin duzu haren bihotzean, Violeta. Ondo pasa oporrak Nikaraguan!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Eraldaketa soziala eta kooperatibak

Eneko Barberena
blogak.goiena.eus/barberenea/

Euskalduna izatea gozamen hutsa da.

Batez ere, euskaraz idatzitakoek zure pentsamendua elikatu, auzitan jarri eta aberasten dutenean.

Zentzu horretan, asko poztu nau Fagorren krisiaren kudeaketa ulertzeko medio hoberenak Goiena eta Berria izatea.

Xabier Bengoetxeari GoiTB-n eginiko elkarrizketa hau memorian iltzaturik dut, Berriako Xabier Martinen kronikak bezala.

Azken honek, elkarrizketa egin berri dio Mondragon Taldeko presidente berriari, Javier Sotili eta gako garrantzitsu batzuk agertu dira.

"Erantzun guztiak ez daude Arrasaten", esan du Javier Sotilek.

Ziur asko ez, kooperatibismoak gero eta pisu gehiago dute Danobat,

Orona edota Batz moduko enpresek baina Arrasate, Arrasate da.

Hau diot harrokeriarik gabe, herrian kooperatibismoak duen pisutik baizik.

Ohiko da sendia edota lagunarte ezberdinetan hainbat kooperatibetako kideak egotea, erraza da ere ardura garrantzitsudun jendea ezagutu eta berarekin zuzenean jardutea.

Kooperatibagintza presente dago egunerokotasunean eta informazio truke informalek uholdea suposatzen dute maiz, kooperatibismotik urrun dauden arrasatearrak ere hein batean adituak direlarik materian.

Hau diot erantzun guztiak ez direlako egongo Arrasaten, ados, baina Arrasateko enpresa ehunak arrakasta funtsezkoa da Mondragon taldearentzat.

Kooperatibagintza hau Udalaitzen magalean sortu zen, krisia ere han etorri zaio eta ez zait esperimentaziorako leku hoberik okurritzen.

Arrasatek asmatzen badu, Mondragonek asmatuko du.

Arrasatek porrot egiten badu, lainoak ilun.

Dena den, Sotilen elkarrizketan gehien harritu nauena da horren argi adieraztea eraldaketa soziala lanpostuak sortzea dela.

Uste dut hori oso errotutako pentsamendua dela adin bateko kooperatibistentzat, lana sortzean ongizatea birbanatzen da.

Baina herrian Fagorren porrotaren atzean lanpostu gehiegitasuna ere aipatu izan da, hots, aberastasuna lanpostuak sortzera bideratzea beste alor batzuk kamutsago utziz.

Ez naiz ni izango lanpostuak sortzearen aurka mintzatuko dena, ongietorriak bitez.

Baina eraldaketa soziala kontzeptu mardula da, kooperatibagintza horizontalagoa eginaz lor litekeena, bazkideen boteretzeari buruz jarduten duena, unibertsitate hezkuntza unibertsalizatzen duena beka gehiagori esker, hezkuntza bere birplanteatzen duena, nazioartekotzearen kontraesanei buruz jarduten duena...

Dena beharko du Arrasatek.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaiako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko abenduko zozketetako irabazaleak



PS3
Julian Alberdi
Muruamendiaraz (Bergara)



Otarra
Pilar Altuna (Bergara)




Gospelerako sarrerak
Iker Ibarra Balanzategi
(Bergara)



Antzerkirako sarrerak
Iñigo Zaitegi Bikuña
(Bergara)



Santamasetako bertso saioa
Gotzon Agirre Arregi
(Arrasate)
Maite Aginagalde Garitano
(Arrasate)



Kosmojet jokia
Begoña Zabaleta Iturbe
(Bergara)
Manuel Lopez Aldekoa
(Arrasate)




'Carmina Burana' opera
Amaia Bikuña Martinez de
Zuazo (Oñati)
Mikel Txintxurreta Igartua
(Oñati)



Bergarako Gabonetako Kontzertua
Miren Anduaga Kortabarria
(Antzuola)
Lorea Zurutuza Alberdi
(Bergara)



Arrikrutzerako sarrerak
Arrate Agirre Agirreurreta
(Arrasate)
Maixa Arozena irastorza
(Aretxabaleta)
Kontxi Idigoras Ostolaza
(Bergara)



'Prime Time' Liburua
Jaione Agirre Arregi
(Arrasate)



Irrien Lagunak aldizkaria
Esteban Barandiaran
(Arrasate)
Gorka Markez (Bergara)
Mikel Sologaiztoa Biain
(Oñati)
Maitane Loyola Zubia
(Bergara)
Jesus Markez Garmendia
(Bergara)
J.M.Ugarte Aiausti (Oñati)
Jose Antonio Amundarain
(Oñati)
Mertxe Kalparsoro Esteibar
(Aramaio)
Trini Galdos Urzelai (Oñati)
Ione Moñux Arantzeta
(Bergara)
Edurne Elkoroiribe Izurrategi
(Oñati)
Mikel Maiztegi Mugarza
(Oñati)
Maribi Visitación Zabaleta
(Bergara)
Andoni Iturbe
Agirrebazategi (Oñati)
Mikel Eguren Laskurain
(Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00

Harreman dendako otarra. Harreman Dendak Arrasateko Eroski Hipermerkatuan dagoen dendan jaso behar da.


Beste sariak. Sariak jasotzeko, etorri, beranduenez, abenduaren 22 eta 23 artean Goienaren egoitzara.

Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Otolara Lizentziaduna, Arrasate. 943 25 05 05

Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.





puntua

ASTEKARI BERRIA

Urtarrilaren 16tik aurrera,
egubakoitzeko Goienarekin batera,
Goiena Klubeko bazkideendako.
Gai guztiak, beste ikuspuntu batetik.



**Goiena Klubeko bazkide ez bazara edo
norbaiti urte osorako oparia egin nahi badiozu:**
943 25 05 05 / kluba@goiena.eus

HERRIAK

ARETXABALETA

Bizikleten eta oinezkoen herri bihurtzeko lehen pausoa emanda

Geltoki plazaren eta Santa Kurtz kalearen arteko bidegorri zatiaren proiektua egin du Udalak eta ikusgai dago Arkupen; abenduaren 31 arte iradokizunak egiteko aukera dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Herri barruko bidegorriak sus-tatu gura ditu Aretxabaletako Udalak, eta horretan hasiko da bidegorriaren tarte bat berrituta, Geltoki plazatik Santa Kurtz kaleko 15. zenbakiraino doan tarte. 460 metro ditu horrek, eta txirrindulariendako bidea zehaztuko dute, oinezkoendako espaloi zabala utzita. Proiektua eginda dago, eta herritarrei aurkeztu zien astelehenean; Arkupeko harreraren ere badago ikusgai. Orain, hamabost egun dituzte aretxabaletarrek proiektu horri iradokizunak aurkezteko.

Agintaldi osorako proiektua


Orain dela zortzi bat urte egin zuten Mugikortasun Plana, eta orain, herri barruko bidegorriari lehentasuna emango dio Udalak. Helburua da txirrindularien, oinezkoen eta autoen arteko elkarbizitza bermatzea, segurtasuna oinarri izanda. "Oinezkoei eta txirrindulariei eremu zabalak egokitu gura dizkiegu, segurtasuna bermatzeko", jakinarazi du Ana Bolinaga alkateak. Hala, aglomeratu gorriarekin zehaztuko dute bizikletendako bakarrik izango den ibilbidea, eta gorritz margotutako espaloia izango da oinezkoendako. Berritze lanekin azpiko lanak ere egingo dituzte: saneamendu eta hornitze hodiak eta argiteria publikoa berritu.

2015eko udal aurrekontuan sartzea da asmoa, baina lanen kostua 995.000 euro da eta agintaldi oso baterako proiektua izango dela jakinari du alkateak.



SESTRA

GELTOKI PLAZA Bidegorriaren lehen zatia da eta 346.278 euroko kostua du. Aparkalekuak lerroan jarriko dituzte eta zuhaitzak mantendu. Bizikleten guneak 2,50 metroko zabalera izango du, eta horren eta aparkalekuaren artean 80 zentimetroko babesgunea.




SESTRA

KURTZEBARRI ESKOLA Bizikleten, oinezkoen eta autoen joan-etorriak batera egingo dira, baina beti oinezkoek izanda lehentasuna. Aparkaleku guztiak kenduko dituzte eta kalea plano bakarrean jarri. Mugak zehazteko loreontziak edo antzeko elementuak erabiliko dira.



SESTRA

SANTA KURTZ KALE HASIERA Bidegorriaren bigarren zatiaren hasiera da eta Santa Kurtz kaleko 17. zenbakiraino doa. Zati horren kostua 648.900 euro da. Iturri gorri pilotalekura bitartean dagoen zuhaitz-ilara kendu egingo dute bizikleten eta oinezkoen guneei lekua egiteko.



SESTRA

SANTA KURTZ KALEA, 15-17 ATARTEAK Azken zatia da, eta, hainbat aukera egon arren, Udalak hobetsi du etxebizitzaren aurrealdean lerroan dauden aparkalekuak kentzea eta bidegorria egitea bertan. Zati hori lotuko dute dagoeneko eginda dagoen bidegorriaren ibilbidearekin.

EROSKI zurekin

Musakola 11 ARRASATE. Tel.: 943 71 10 30

2. alea -%70

EDERRA Errioxa JDK erreserbako ardo beltza, 75 cl
7,30 € botila

2. alea -%70

SAN MIGUEL Garagardoa, 33cl x 12 aleko packa
alea: 5,60 €

2. alea -%70

EL LOBO Turroi gogorra edo biguna, 300 g
Alea: 4,45 €

2. alea -%70

JUVER Anana xerratan 140 g x 3 packa
Alea: 2,79 €

42LB650V LED SMART 3D TELEBISTA
A+ sailkapen energetikoa.

539€

3D BI BETAURREKO OPARI

LG Smart TV webOS CINEMA 3D

42" 106,68 cm

53,90 €/hileko

DOAKO FINANTZAKETA 10 hilabetea

Eskaintza baliagarria 2015eko urtarrilaren 6ra arte



Olentzero gozokiekin; erdiak bidezko merkataritzakoak izango dira. | GOIENA

Hartza izango da aurten Olentzeroren laguntzaile berria

Ikazkin maitatuenarekin batera euskal pertsonaia mitologikoak ezagutarazten dabil Komisiñue

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txoronpia eta Txoronpio, Lamina, Basajaun, Martin Abade, Akerbeltz, Galtzagorriak... Luzea da Santamas Komisiñuen lanari esker Olentzerok Arrasaten izan dituen laguntzaile leialen zerrenda. Olentzero bera pertsonaia mitologikotzat dute Komisiñuek, eta opariak banatzen dituen ikazkina baino gehiago dela uste dute. Horregatik azken urteetan euskal mitologiako hainbat pertsonaia ezagunen laguntza jaso du Euskal Herriko ikazkin maitatuenak.

Euskal sinismenekin lotura

Txoronpia eta Txoronpio urtero jaisten dira abenduaren 24ko goizean haurren gutunak jaso-

tzera. Aurten laguntzaile berri bat egongo da, Hartza: "Euskaldunek Hartzaren inguruan sinesmen ugari zituzten. Esaterako, hura hiltzeak zorte txarra zekarrela; horregatik ehizatu behar zutenean hil aurretik otoitz moduko bat egiten zioten. Beharbada, sinismen garrantzitsuena zen uste izatea Hartza gizakiaren beraren arbasoa zela. Kondairetako baten emakume batek bularra ematen dio Hartz-kume bati, bere tartekoa balitz bezala. Beste elezahar baten arabera neska gazte bat Hartz batez haurdun geratzen da, eta umeak giza itxura hartu arren ikaragarritzko indarra dauka", jakinarazi du Komisiñuek. Halako istorioak

OLENTZEROREN BISITA: HILAK 24

11:40 Txoronpio, Txoronpiak eta Hartzak Munar, Uribe, San Andres, Musakola eta Santa Teresa auzoetan jasoko dituzte Olentzerorendako gutunak.

13:15 Txoronpio, Txoronpia eta Hartza, Seber Altube plazan; euria eginez gero, Uarkape pilotalekuan.

18:15 Olentzeroren irteera: San Andres (Bañez Doktoea), Maiatzaren Bata plaza, Garibai, Maala, Portaloia, Erdiko kalea eta Herriko Plaza.

19:00 Herriko Plazan, Olentzeroren agurra.

Pirinio guztian zehar daudela diote: "Seguruenik, Hartza izango da animalia mitologiko inportanteenetako bat da euskal-akitaniar-pirinioar gizakiarendako".

Ume arrasatearrek abenduaren 24ko goizean ezagutuko dute pertsonaia berria. Gero, arratsaldean, helduko da Olentzero. Aurten, gainera, inoiz baino solidarioago dator, banatuko dituen gozokien erdiak bidezko merkataritzakoak izango dira-eta.

Ikuskizuna izan dute asteen

Bestalde, martitzenean *Galtzagorriei to, Inaxito* ikuskizunaz gozatzeko aukera izan dute Amaia antzokian Haur Hezkuntzako azken mailako zein Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek. Antzezlanak ikusi zuten haurrek euskal mitologiaren "mundu magikoarekin" gozatzeko aukera izan zuten.

Belaunaldi baten borroka jasotzen duen liburua

1934ko urriko iraultzaren gaineko lana aurkeztu dute; Ttukunen eta Eroskin salgai, 20 eurotan

J.B. | ARRASATE

Intxorta 1937 Kultur Elkartek argitaratutako *Octubre de 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general* liburua aurkeztu zuten martitzenean Kulturaten. Oihartzun handiko gertakariaren 80. urteurrena dela aprobetxatuz atera dute liburua: 400 orri, 80 argazki eta 40 dokumentu -horietako asko inon argitaratu gabeak- jasotzen ditu. Juan Ramon Garai, Jesus Gutierrez eta Josu Chueca izan dira egileak. Ttukun dendan eta Eroskiko kioskoan egongo dira salgai, 20 eurotan.

Belaunaldi baten borroka

Belaunaldi batek askatasunaren, berdintasunaren eta justiziaren alde egindako borroka kontatzeko atera dute liburua: "Iraultza soziala Arrasaten, Eibarren eta Bizkaiko Meatzaldean izan

zen, batez ere. Herri horietan langileak armatuta zeudela herri guztia hartu zuten, Guardia Zibilaren kuartela izan ezik. Borrokaldi handiak izan ziren eta ez zen kuartela hartu, militarrek sartu zirelako tartean. Era berean, iraultza sozialaren aldeko zenbait neurri hartu ziren; adibidez, dirua abolitu egin zuten Arrasaten", dio Garaik. Orain arte ezagutzen ez ziren hainbat zehaztasun jasotzen ditu obrak; 2.000 atxilotu ingururen izen-bizenak, hil ziren 53 pertsonetatik 41en izenak eta balaz zauritutako 135 pertsonaren izenak, besteak beste: "80. urteurrena aukera polita iruditu zitzaigun gaiari ikuspegi orokorra emateko. Aurretik bazegoen kontatuta zenbait herritan izan zuen eragina, baina lau herrialdeetako laburpenik ez zegoen", adierazi du Gutierrezek.



Arrasateko preso batzuk Guadalupeko gortoketuan, 1935 hasieran. | INTXORTA 1937

FORD FOCUS BERRIA
➤ **Aparkatzeko laguntza-sistema**
Aparka daiteke ikusi ere egiten ez den leku baten? Ford Focus berriarekin, bai. Leku irajinaezinak lokalizatu eta bertan aparkatzen du. Horrekin eta beste hainbat prestazioarekin urrunera eramango zaitu Ford Focus berria.
Ford.es
12.990 euro edo 120 euro hilean
Sarrera: 3.165 euro. Azken kuota: 7.636 euro. 37 hilabete.

MUGARRI AUTOAK
Arrasate
Araba etorbidea z/g
tel.: 943790744

Bergara
Amillaga 5
tel.: 670827186

Ford Focus gama. Batez besteko kontsumo konbinatua 4,2-6,8 l/100 km. CO2 emisioa 105-159 g/km. EcoBoost motorrak %20 hobetuz du kontsumoa motor arrunt baten aldetik. Ford Focus Trend 1.0 EcoBoost, Auto-Start-Stop, 100 ZP (74 kW), 5 atx, atzeko beira-jasagailuak eta lanotako argiak. Eskaintzen diren beste BEZA, matrikulario zergia, garrantzia, promozio-deskontuak, kontzesio-ekarpena eta deskontuak FCE Bank PLC. Serbizio finantzaberraren bidez a Ford Credit Classic konpainiarekin bidez (24 hilabeteko gubamendua iraupen-konpromisoa). Eukarriko prezioa: 12.990,31 euro. Sarrera: 3.165 euro. Azken kuota: 7.636 euro. 37 hilabete. Irteerak-kontzesioa: 334,06 euro. ITN (TIN) %20. UTB (TAE) %9,73. Prezioa, erpeko ordainak gero: 15.425,31 euro. Gubamenduen PIVE planaren ekarpenaren mende. Penintsulak eta Bolser uhartietan baliagarria hilabetea bukatu arte. Ez da baliagarria beste deskontu batzuekin. Gurekin den modeloa ez dauka zertan erabiltzeko izan. Ford.es

LANDALUZE
HARATEGIA -TXERRIKITEGIA

BEREZITASUNAK
TRIPAKIAK
URDIAZPIKOAK
ODOLOSTEAK

Zorionak eta Urte berri on!!!

Iturriotz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

Erdiguneko gaztegunea abenduaren 26tik 30era egongo da zabalik

Gaztegunea irekitzeaz gain, hainbat ekintza antolatuta dituzte hila- ren 26an hasi eta 31ra arte. Euskal selekzioaren partidura, Hontza Extrem abentura parkera eta mendira irteerak, Sustraibarri tailerra eta paintball saioa izango dituzte, besteak beste. Izena eman behar da Txatxilipurdin, gazte txokoetan edo Gazte Bulegoan.

ARPE
Ile apaindegiko artikuluak

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09



Holan eta Merke Zalduspeko txabolan, ugazaba Garitaonaindiarekin. | J. DOMINGO

'Holan' eta 'Merke', plazaratzeko gertu

Jendetsu espero da, berezko santamas eguna; bereziki, ateri egongo dela iragarri dutelako

UBANE MADERA | ARRASATE

Holan eta *Merke* santamasetako protagonista nagusietako bik azken aurkezteko eguna dute gaurkoa (egubakoitza) santamas bezperako aurkezpena iritsi aurretik. Domekan, 19:00etan izango da hori, Herriko Plazan. 110na kilo pasatzoko euskal arrazako txerri zuri-beltzak bisitatzea joatean, baina, kontuan izan behar da Zalduspe inguruko lasaitasunean hazitakoak direla, Joseba Garitaonaindia ugazabarekin egunero mendian ibilalditxoak egin dutenak; beraz, kaleko kontuekin –kaleko zurrun-biloa– gutxi ohituta daudenak.

Asteburu betea

Domekakoaren aurretik, baina, beste estreinaldi bat ere bada santamasen bueltan: kuadrillen arteko lehen herri probak. Hori bihar da, Biteri plazan, 19:00etan hasita. Ahaztu barik santamase-

tako kirol proba klasikoak ere badirela edo izan direla ordurako.

Batarekin eta bestearekin, beraz, Arrasate Tomas zaintzailearen gurtzaile fina izango da mendeotakoari tinko eutsita.

Alkate ohiarekiko elkartasuna

Jai kontuez gainera, baina, elkartasuna ere agerian izango da, buruko zapi modura. Ino Galparsoro Arrasateko alkate ohiaren aurkako epaiketa urtarrilaren 12an hasiko da Madrilen. Hala, INOereLIBRE ekimeneko kideek honako eskaera hau egin diete herritarrei: "Santamas jaietarako zapi laranja ateratu ditugu. Laranja jatu dezagun Arrasate jai hauean, epaiketa politikoen aurkako eta Inoren aldeko aldarria ikus dadin", diote. Zapiak Irati, Taupa eta Monte tabernetan daude salgai, eta santamas egunean Herriko Plazan egongo den talo postuan.



JAGOBA DOMINGO

Arbola jausita errekan, alderik alde

Oraingo asteko eguaztenean, goizeko ordu txikitik, arbola bat erori zen Epeleko ur araztegiaren ondoan, Elorregirako bidegorri ondoan; sekuaia bat, hain justu ere. Inguru hartako bidegorritik paseatzen zebilen gizonetako batek ikusi zuen. Egun batzuk lehenago ere ikus zitekeen zuhaitz hori nahiko okertuta eta erortzeaz zegoela: azkenean, haizearen eta grabitatearen *laguntzaz*, Deba ibaira jausi zen, alderik alde. Zorionez, gauez jausi zen, eta ez zuen ezelako kalterik eragin. Edozelan ere, jausitako zuhaitzaz gainera, beste bizpahiru sekuaia ere erortzeaz daude inguru hartan. Komeni da, bada, kontuz ibiltzea.

Titulatu berriendako lan-poltsa zabalik hilaren 30era arte

Udalak eta Saiolaneak, elkarlanean, duela bi urtetik gaur arte titulatu direnendako programa bat izan dute martxan. 44 pertsona aurkeztu dira eta dagoneko hamabi proiektu jarri dituzte abian, beka-dunek inguruko hamabi enpresa txikitik sei hilabete lan egiteko; hala ere, aipatzekoa da abenduaren 30a arte egongo dela lan-poltsa horretan izena emateko epea zabalik.

Kurtzetxikira ganadua eramateko eskaerak, bihar baino lehen

Kurtzetxikiko zelaian ganadua larrean ibiltzeko modua arautzen duen ordenantza astelehen argitaratu zen. Ordenantza horrek jasotzen ditu larratze eskabideak egin behar direla bihar baino lehen, eta bertan azaldu behar da espezie bakoitzeko zenbat buru ibiliko diren larrean. Horrekin batera, aurkeztu beharko dira ganaduaren osasun ziurtagirien eta identifikazio fitxen kopiak.

Gabonetako ehun otzara banatuko ditu Ibai-Arteak bihar

Aurten, bosgarren urtez, Ibai-Arte merkataritza elkar-teak Gabonetako 100 otzara zozketatuko ditu Ibai-Arte txartela erabiliz elkarteko kide diren komertzioetan erostekak egiten dituztenen artean. Zozketa bidez banatzen dira otzarak eta Ibai-Arteko bezeroen fideltasuna saritzea da ekimenaren helburu nagusia. Saskiak bihar banatuko dira, Herriko Plazan (13:30).

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gabon zoriontsuak!

Iturriotz 21 · Tel.: 943 79 03 84 · eyaelec@telefonica.net
ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Eduñe Iriando - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriando - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa

Diagnostikoa - Orientazioa

Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak

Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak

Estimulazio goiztiarra

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 · Tel.: 943 79 48 77 · ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

arbolapeta



Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 · ARRASATE · Tel.: 943 79 81 82

Pablo Gartzia | Ford Mugarriko entrenatzailea

"Guretake oso partidu garrantzitsua da biharkoa, puntuak lortzeko"

Euskal Kopako finalerdia jokatu dute Gartziaren mutilek urtarilaren 4an Bidasoako taldearen aurka

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Denboraldi polita egiten ari dira Ford Mugarriko mutilak. Aurreko jardunaldian Tolosari kanpoan gutxiagatik irabazi eta gero, tinko jarraituko dute arrasatearrek lanean. Bihar, hilak 20, izango da hurrengo norgehiagoka, Hondarribiaren aurka, Iturripen, 18:30ean. Bestetik, Euskal Kopan emaitza onak atera dituzte eta urtarilean finalerdia jokatu dute.

Nola aurreikusten duzue biharko lehia?

Bi partidu geratzen zaizkigu lehen itzulia amaitzeko. Izan ere, guretake oso partidu garrantzitsua da biharkoa, puntuak lortzeko, batik bat; horrekin batera, gogotsu gaude, erronka handia delako. Hondarribia talde oso gaztea izan arren, duela gutxi igo baita kategoriaz, indartsu datorrela bistakoa da. Oso talde ona dela uste dugu. Esan beharra dago ez dituztela puntu asko -6 punturekin, 14. postuan daude sailkatuta-, baina nolabaiteko kezka



Pablo Gartzia. | JOKIN BEREZIARTUA

badugu gure sailkapeneko postuari eusteko. Eta noski, garaiaren bila goaz; are gehiago, etxean jokatzen dugula kontuan izanda.

Bestalde, Euskal Kopako final-laurdenak gainditu dituzue. Prest finalerdirako?

Urtarrilaren 4an, domeka, lehiatuko gara Euskal Kopako finalerdian, Bidasoaren aurka. 12:30ean jokatu dugu, Iturripen. Gu baino kategoriatu bat gorago

dagoen taldea da; beraz, ez da samurra izango Bidasoako mutilak menderatzea.

Nolako izan da zuen ibilbidea aurtengo Euskal Kopan?

Kopa arraroa izaten ari da aurtengo. Zorionez edo zoritxarrez, hasierako partiduetan talde oso indartsuen aurka jokatu genuen, eta samur irabazi genuen; sorpresa handia izan zen guretake. Final-laurdenetan Eibarren aurka jokatu genuen; indartsu zetoarren taldea, norgehiagoka bat bera ere galdu gabe zegoelako. Hala ere, irabazi egin genien, puntu bakarrarengatik.

Eta aurrera begira?

Urtarrilaren 4ko partidua irabazten duenak Zarautzen edo Barakaldoren aurka jokatu du. Aipatzekoa da Bidasoarekin batera bi hauek ere gu baino maila altuagoan jokatzen duten taldeak direla. Baina ilusioz eta ahalegin handiz ekingo diogu lanari. Geroago gertatuko dena, nork daki...; ahal duguna egingo dugu emaitza hobereenak lortzeko.

Gabonetan deskantsu gutxiorduan...

Astebeteko deskantsua hartuko dugu, besterik ez. Gainontzeko egunetan entrenamendua izango dugu; astean lau entrenamendu egiten ditugu. Ligako postuak mantendu gura baditugu, ezin gara denbora luzez geldirik egon. Gainera, urtarileko Euskal Kopako norgehiagoka hortxe dago, eta, bestalde, urtarilaren 11n berriro ere ekingo diogu ligari. Beraz, ez; ez dago deskantsu luzeetarako denborarik.

Santamas txapelketako finalak gaur, profesionalen pilota jaialdia 22an

Munduko emakume palista onenak eta pilotari profesionalak lehiatuko dira astelehenean

A. L. | ARRASATE

Urtero legez, pilota partiduz josita datoz santamasak. Astelehenean, hilaren 22an, bi partidu jokatu dituzte Uarkape pilotalekuan, 17:30ean hasita. Batetik, emakume palisten txanda izango da -munduko txapel-dunak-: Goikoetxea eta Mendizabal, Irazustabarrena eta Ruiz de Larramendiren aurka lehiatuko dira. Bestetik, profesionalak eskuz binakakoan: Mendizabal eta Pascual, Lasaren eta Tolosaren aurka.

Sarrera bost euro da; adingabeendako, doan.

Gaur, herriko gaztetxoak

Bestalde, herri mailako santamasetako finalak ere jokatu

dituzte. Gaur, hilak 19, Uarkapen izango dira (19:00).

Ia hiru hilabete eman dituzte 50 gaztetxo inguruk egubakoitzero partiduak jokatzen, banaka, santamasetako txapelketan. Bada, partidu horien ondoren, jokalarientzako eta haien familiakoendako luntx bat egongo da bertan.

Klubeko gazteak kanpoan

Horretaz gainera, klubeko gaztetxoek ere hainbat final jokatu dituzte asteburu honetan: alde batetik, Murua eta Llodio kadeteak Añorgan lehiatuko dira, klubaren arteko finalean; eta bestetik, Narvaez alebina Eibarren arituko da, finalerdietan hura.



lazio santamasetako txapelketako talde argazkia. | IBAI BOLINAGA

Zuri-moreek hortzak erakutsi beharko dizkiote bihar Tolosari

A. L. | ARRASATE

Bihar, hilak 20, MU saskibaloi taldeak Tolosaren aurka izango du norgehiagoka, 18:30ean, etxetik kanpo.

Bi taldeak nahiko parekatuta daude sailkapenean: izan ere, arrasatearrak zazpigarren postuan daude, 12 punturekin, eta tolosarrak bederatzigarrenean, puntu berberekin.

Josu Larreategik, zuri-moreen entrenatzaileak, biharkoa partidu gogorra izango dela adierazi du. "Euren kantuan jokatzea gogo-

rra izaten da; saski gogorrak dituzte eta eurek inork baino hobeto ezagutzen dute euren etxea. Bestalde, onartu beharra dago bi taldeon norgehiagokak beti egon direla oso parekatuta; akats minimoek baldintzatzen dute talde baten edo bestearen garaipena", gaineratu du Larreategik.

Aipatzekoa da jokalaria gutxiagorekin dabilatzala entrenatzen Larreategiren mutilak: hiru jokalaria lesionatuta daude eta beste bi, berriz, kanpoan daude, lan kontuak direla-eta.

Gabonen ondoren liderren aurka

Talde arrasatearren asmoa Gabonetan entrenatzen jarraitzea da, erritmoari eusteko. Gainera, Gabonen ostean, Santanderko La Gallofa Cantbasquet taldearen aurka lehiatuko dira: haiek EBA ligako liderrak dira momentu honetan, 15 punturekin, hain zuzen ere.

Bestetik, lagunarteko partiduak jokatzeke aprobetxatu guraiko lituzkete Gabonak arrasatearrek, baina oraindik asmo bat besterik ez da.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Haizea's weah - Kartzelauten	0-0
Lasagabaster - Aldatz	4-5
Arrasate - Drink Team	6-4
Abokajarro - Betrayer	2-0
Jibaro - Ostantz	5-2
Dribling - Iluntz	1-0
Sonografos - Alytis	2-3

8. Haizea's weah	8	6
9. Betrayer	7	6
10. Kartzelauten	4	6
11. Drink Team	4	6
12. Ostantz	4	6
13. Arrasate	3	6
14. Iluntz	0	6

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1. Dribling	16	6
2. Aldatz	15	6
3. Jibaro	15	6
4. Alytis	13	6
5. Sonografos	12	6
6. Abokajarro	9	6
7. Lasagabaster	9	6

PARTIDUAK

ABENDUAK 20, ZAPATUA
10:00 Arrasate - Kartzelauten / Sonografos
11:00 Sonografos - Aldatz / Arrasate
12:00 Iluntz - Betrayer / Aldatz
ABENDUAK 21, DOMEKA
12:00 Dribling - Drink Team / Abokajarro
13:00 Abokajarro - Alytis / Dribling
URTARRILAK 10, ZAPATUA
11:00 Jibaro - Lasagabaster / Haizea's Weah
12:00 Haizea's Weah - Ostantz / Lasagabaster

SARRAILAGINTZA-LANAK,
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
Oinetako konponketak - Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak



RAOS

Bañez doktorea 6, behea
Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57

erreka

t a b e r n a - j a t e t x e a

Ondo ibili santamasetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

Organoa entzun, ikusi eta gertutik ezagutzeko aukera gaur iluntzean

Kontzertu didaktikoan hainbat musikariren lanak aurkeztuko ditu Aitor Oleak

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Gaur iluntzean San Juan Bataiatzailearen eliza organo doinuak beteko du Aitor Oleak, Euskadiko Soinuak elkartearen eskutik. 20:30ean hara joaten direnek ez dute, ordea, kontzertu arrunt bat topatuko. Izan ere, antolatzaileek izaera didaktikoa eman nahi izan diote emanaldiari, eta, horregatik, musika eta azalpenak tartekatuko dituzte saioan zehar. Hain zuzen ere, horixe izango da ekitaldia berezi bihurtuko duen faktorea. Pieza eta pieza arteko azalpenak, guztira, 20 minutu iraungo dute, eta musika emanaldiek, berriz, 40.

Euskal musikaren adierazle

Oleak hainbat musikariren eresiak aurkeztuko ditu, euskal doinuak erabiliz, haren esanetan, euskal musikari gehienek elizetan egin zituztelako euren lehen



Aitor Olea, organo-jotzailea. | GOIENA

urratsak. Gauzak horrela, Eduardo Gorosarriren (1889-1947), Victor de Zubizarretaren (1899-1970), Jesus Guridiren (1886-1961) eta Jose Luis Ibartzabalen (1911-1995) hainbat lan ezagutzeko aukera bikaina izango da gaurkoa.

Izan ere, doinua bera entzuteaz gain, pieza bakoitzaren egitura nola eraikitzen den eta haren jatorria zein den jorratuko dute. Oleak irudiekin osatuko ditu azalpenak; beraz, musika, entzuteaz gain, ikusi ere egingo da.

Manu Gomezen 'Das Kind', garai historiko ilun baten iturburua

MAIALEN TORRES | ARRASATE

XIX. mende amaierara, Austriara darama ikuslea Manu Gomez zuzendari arrasatearraren *Das Kind* laburrak. Haur baten jaio-tza kontatzen du istorioak, tentsioz betetako aitaren ikuspegitik. Gainera, unea bera, protagonistentzat oharkabea, baina mugarri his-

toriko bilakatuko da ikuslearen begietan, etorkizun ilun baten iturburu.

Zuzendariaren hitzetan, laburrak "jaiotzaren giza poztasuna eta gizakiaren eraldaketaren etorkizuneko ikara minutu gutxitan eta gertakari bakarrean kontatzea" du helburu.

Amaia antzokian ikusgai

Gaur bertan izango da *Das Kind* ikusteko aukera, Amaia antzokian, 20:00etan. Austrian giro-ta egon arren, Madrilen egin zuten laburra, baina, hori bai, erabat alemanez filmatu zuten, eta ondoren bikoiztu. Gomezen lanak hemezortzi minutu irauten du. Amaiera joaten direnek, ikus-entzunezkoak kontatzen duen istorioak harrapatuta, euren larruan sentituko dituzte protagonista tentsioa eta ezinegona.

Santamasetan ere, kantuz eta dantzan

Portaloi Kultur Elkartek ere egingo du bere ekarpena santamasetan kaleak girotzeko

M.T. | ARRASATE

Portaloi Kultur Elkarteari esker girorik ez da faltako gaur herriko kaleetan. Izan ere, elkar-tearen hamargarren urteurrena dela eta, kalerik kale kantari irtengo dira, Gabon kantak eta bestelakoak abestuta. 19:00etan Portaloitik ekingo diote kantaldiari, eta, gainera, bi kanta berezi aurkeztuko dituzte: *Umetxoa lo eñizu* izango da bata, gerra garaitik berreskuratutako kanta hunkigarria;

besteak, berriz, *Zorion bat, zorion bi* du izena, eta duela hamar urte arrasatear batek sortu zuen.


Bestalde, Uarkape pilotalekuko tabernan, Herrixa Dantzari dantzaldi irekia izango da, Patxi Monteroren gidaritzapean. 19:30etik 21:00etara, soka, bikoteka, soltean eta korroan egingo dute dantza, besteak beste. Horren ondoren, kantarietako dantzarietako afaria egingo dute elkarrekin.

Arrasate Musikaleko ikasleek instrumentu eta doinuaren elkargune bihurtuko dute gaur Kulturate

18:30ean hasita, Arrasate Musikaleko Ikasleen kontzertua izango da gaur Kulturaten, eta askotariko instrumentu eta doinuak batuko dituzte. Besteak beste, *Zure doinua*, *Stand by me* eta *Hator hator* Gabon kantak. Horrez gain, hilaren 31n, bandak Gabon zaharreko kontzertua eskainiko du. 20. urteurrena izanik, aurtengoa berezia izango da. Jose Ramon Vitoriak, bandako lehen zuzendariak, 1994ko kontzertuan jotako hiru pieza ekarriko ditu gogora, eta horietan zuzendari lanetan arituko da.

Kursaaleko emanaldietara joateko doako autobus zerbitzua jarriko dute, hilaren 27an hasita

Kursaaleko kultura eskaintza Debagoienara gerturatzeko, doako autobus zerbitzua jarriko dute hainbat ekitalditara joateko. Egitasmoa *Kantuz topa* izeneko kontzertuarekin abiaraziko dute, abenduaren 27an. Autobusean tokia erreserbatzeko, Kursaaleko Elkarguneko webgunean sarrerak erosi eta kultura saileko 943-25 20 00 telefonora deitu edo kultura@arrasate-mondragon.net helbidera idatzi besterik ez dago, hilaren 22a baino lehen. Gazteek eta langabeek abantailak izango dituzte sarrerak erostean.



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Santamas jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



Gabon zoriontsuak!

Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86
www.umearrasate.es



Egin zaitez gure lagun.
UME ARRASATE



JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA



Euskal okela, bertan egindako txorizoa, tripakiak eta solomoa

Olarte kalea 20
ARRASATE



AS Reformak

• ERREFORMAK OROKORREAN
• BIOERAIKUNTZA

Zarugalde kalea 6 - 1
ARRASATE
Tel.: 943 08 27 39
607 95 79 11
www.asreformak.net

Ohiturei eutsiz, jan dezagun txistorra lagun artean!!
Bihotz-bihotzez, urte berri on!!



Bergarako Orkestra Sinfonikoa iazko Gabon kontzertuan. | GOIENA

Gabon emanaldiek beteko dute Udal Pilotalekua

Ikasleen emanaldiaren ostean, bihar nagusien Gabonetako kontzertua izango da

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Egun bereziak dira hauek bergararentzat, eta, urtero moduan, musikak garrantzi berezia izango du. Bihar izango da Gabonetako kontzertu nagusia, herriko hainbat musika taldek egingo dutena; horren aurretik, baina, Bergarako Musika Eskolako ikas-

leek gaur egingo dute emanaldia, 18:30ean; hura ere Udal Pilotalekuan izango da.

Musika Eskolako emanaldia 18:30eko kontzertuan, eskolak dituen taldeek hartuko dute parte: *suzuki* taldeak, txistu taldeak, akordeoi taldeak, hasiberrien

abesbatzak, haurren abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak, big band taldeak, trikiti taldeak eta gazte bandak. Ikasle guztientzako, ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera bikaina izango da.

Talde bakoitzak bere pieza joko du, eta kontzertuaren bukaran ikasle guztiek batera, 350 bat

musikarik, Miguel Gonzalez Bastidaren omenez *Belengo estalpe txiki batean* interpretatuko dute.

Gaurko emanaldiko sarrerak Musika Eskolan eta pilotalekuko txarteldegian eskura daitezke, gazteenak 2 eurotan eta nagusienak, aldiz, 4 eurotan.

Klasikoetan klasikoena

Duela 34 urte egin zuten lehen Gabonetako kontzertua. "Ingu-ruetako lehena izan zen", dio Igor Larrañagak, Udal Musika Bandako kideak. Urteen poderioz, kontzertua gorpuzten joan da, eta bihar, 22:30ean, Udal Musika Bandak, Aritzeta Abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gazteak hartuko dute parte. Bada, sarrerak *Bergara.net*-en eta kultura etxean eros daitezke.

Gabonetako kontzertua den arren, emanaldiek ez dute Gabonekin lotura zuzenik. "*Aquarius* eta *Let the sunshine in* eskainiko ditugu", esan du Orfeoiko lehen-dakari Karlos Etxanizek. Aritzeta *Loriak Udan* eta *Ubi Caristas* abestu eta gero, *Guantanamera* abestiarekin epelduko du kontzertua. Orkestra Sinfonikoak, aldiz, *Brave* filmaren soinu banda joko du eta bandak, *La quintessenza*. Talde bakoitzak hamabost minutu inguruko emanaldia egingo du.

Kontzertua guztiek batera borobilduko dute: ohitura bilakatu diren *Hator hator* eta *Adeste fideles* abestu eta gero, aurtan *El principe Igor* eskainiko dute.

Astelehenetik aurrera Gabon sariko azken partiduak

I.G. | BERGARA

Kontzertuak direla-eta aste bukaera honetan ez da pilota partidurik egongo, baina Gabon sariak ez du eten luze-rik izango. Astelehenean, kadeteek eta infantilek Gabon sariko finalerdiak jokatu dituzte, 17:30ean, eta egun bat geroago, 6, 7, 8 eta 9 urteko pilotarien txanda izango da.

Hilaren 30ean, aldiz, herriko torneo amaierara iritsiko da eta Udal Pilotalekuak finala hartuko du.

Domeka-Azoka lehen aldiz San Martin plazan egingo dute

Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzea da azokaren helburua. Bertan, erabiltzen ez diren gauzak edo eskuz eginikoak trukatzeko edo saltzeko aukera egongo da. Domekan 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik azoka txikia. Eguraldiak laguntzen ez badu, udaletxeko arkupeetan egingo da.

Tattoo Circus topaketa izango da aste bukaera honetan gatzetxean

I.G. | BERGARA

Tattoo Circus presoekiko elkartasunaren alde lan egiten duen taldeen topaketa bat da. Bertan batzen diren taldeek "zigorrean oinarritutako politika kriminalen aurrean erantzun alternatiboak bultzatu" nahi dituzte. Eta argi daukate gizartea dela botere egitura horien aldatetarako motorra. Horretarako, gaurtik hasita, ekintzaz beteri-ko asteburua antolatu dute.

Topaketa irekia

19:00etako aurkezpenarekin irekiko dute topaketa eta 21:30etako kontzertuekin boro-

bilduko dute egubakoitza. Zapatuan, 12:00etan, kartzelei buruzko hitzaldia egongo da eta 21:00etan, aldiz, kabareta.

Domekan, 12:00etan, nagusientzako hitzaldi bat egongo da eta umeek ipuin kontaketa izango dute. 17:00etan, torturari buruzko mahai-ingurua. Bada, kartzela zaharreko asteburu berezia 21:00etako kontzertuekin agurtuko dute.

Asteburuan, kontzertuez eta hitzaldiez gain, tatuajeak eta *piercing*-ak egiteko aukera eta presoei idazteko txokoa ere egongo dira. Bazkaltzeko aukera ere egongo da.

Martxan da janari bilketa, Saharara bidaltzeko

Bubisher elkarteak atzo abiarazi zuen sahararren aldeko janari bilketa kanpaina, eta urtarilaren 20a arte jasoko dituzte elikagaiak. Bada, bilketarekin bat egin nahi duten herritarrek, jakiak herriko denda txikietan lagatzeko aukera izateaz gain, Eroskin, Super Amaran eta Dian ere horretarako txokoak izango dituzte.



GOIENA



LETE
arraindegia

BIDEKURUTZETA 1
943 76 34 51

Alfonso Alonso | Udaltzainburua

"Bonuei esker, jendeak hobariaren dirua herrian uzteko aukera izango du"

'Kotxea garajea' programak izandako arrakastaren ostean, programak aurrera egingo du

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Orain arte bezala, Udaltzaingotik kudeatuko da *Kotxea garajea* programa. Herriguneko garajeak erabili eta aparkaleku libreak izateko programak atxikimendu berriak izan aurretik, lehen urteak

izandako arrakastaren inguruan hitz egin du Alfonso Alonso udaltzainburua.

Zenbakiei kasu eginez, argi dago Kotxea garajea programak herri-tarren babesa eta atxikimendua jaso duela.

Horrela izan da, bai. 703 erabil-tzaile izan ditugu aurtan, espero genituenak baino gehiago. Zeintzuk izan dira arrakasta horren arrazoiak?

Dudarik gabe, hobariak erabil-tzaile asko animatu ditu, baina jende kontzientziatua ere badela antzematen da.

Hobaria bi modutan jaso daiteke.

Nahi dutenek, hobaria dirutan jaso beharrean, bonutan jaso dezakete. Ni aukera honen aldekoa naiz, hobaria gure bulegora gerturatzekoan jasotzeaz gain, biribiltzeari esker, jendeak kopuru handiago jasoko du-eta. Hobaria dirutan jaso nahi dutenek, aldiz, kanpaina bukatutakoan jasoko dute dirua.

Bonuekin, gainera, diru hori herrian geratuko da.

Jendea, Udaletik jasotako dirua ostera herrira bueltatzeko aukera emango dio.

Martxan dago 2015eko kanpaina?

Bai; herritarrek etxean eskutitz bat jaso dute, eta bertan ageri da gure bulegora noiz joan behar duten. Herrian geroago eta auto gehiago dagoenez, horrelako programa baten premia zegoela uste dut.

"Martxan dago datorren urteko 'Kotxea garajea' kanpaina"



Alfonso Alonso udaltzainburua. | IMANOL GALLEGO

Gabonetan hondakin bilketa zerbitzuak aldaketak izango ditu

Oporren ostean bilketa zerbitzua ohiko ordutegi eta egutegira bueltatuko da

I.G. | BERGARA

Gabonetako jaiegunak direla eta, atez ateko hondakin bilketak zenbait moldaketa izango ditu.

Aldaketa horiek egun zehatz batzuetan eta jaiek irautean duten bitartean soilik egongo dira indarrean. Horren ostean, ohiko egutegira bueltatuko da zerbitzua.

Herritarrendako egun bereziak

Abenduaren 24an eta 31n, gauean egin ohi den bilketa zerbitzua

eguerdian egingo da; beraz, konpresak, pixoihalak-eta 13:30ak baino lehen atera beharko dira.

Etseko hondakin handien bilketa (altzariak, koltxoiak, etxetresna handiak...) abenduaren 23an eta 30ean egingo da, ohiko zerbitzua bere horretan mantenduko da-eta. Gogoan izan behar da, baina, hondakin horiek jasotzeko aurrez 943-71 19 38 telefonora deitu behar dela abisua emateko.

Merkataritza eta industria

Komertzioen eta industriaren bilketa egunetan ere aldaketak egongo dira. Bi sektore horien zerbitzuaren nondik norakoak azaltzeko, Udalak *Bergara.net* webgunean bi sektore horien bilketa zehatz azaltzen duen koadro bana eskegi du.

Webguneko koadro horietan zehazten dira egunez egun sektore bakoitzak zein frakzio eta noiz atera behar dituen.

Ariznoa gimnasia taldeak Gabonetako erakustaldia egingo du gaur Labegaraietako kiroldegian

Iazko arrakasta ikusita, aurtan ere Ariznoa gimnasia taldeak Gabonetako jaialdia egingo du. Urteko azken erakustaldia izango den honetan, herriko gimnasta gazteek aurtan ikasitakoa erakutsiko diete herrikideei. 18:30ean, adin tarte askotariko talde eta bakarlarien ariketa ikusgarriari esker, Labegaraietako kiroldegia gimnasia-gune erraldoi bilakatuko da.



Gimnasia taldeko zenbait kide. | ARIZNOA GIMNASIA ERRITMIKOA

Gabonetako gutizia tentagarrienak erosteko, Napar Feria egongo da bihar

I.G. | BERGARA

Eskuz egindako produktuz beteko da bihar San Antonioko plaza. "Jendeak gustuko duen hitzordua da", dio Patxi Uribe-salgo antolatzaileak.

Gabonak gainean dira, eta, seguruenek, aurtan ere, Napar-bideak ekarritako pate eta foieak izango dira produktu eskatuenak.

Feria bat baino gehiago

Napar Feria ez da salmentara mugatuko, eta, urtero moduan, gazteek tokia izateaz gain, musika, bigantxek eta poneyek ere tokia izango dute.

Ez galdu gutizia eta gertuko produktuen erakusleiho bikaina izateaz gain Gabon zaporea duen feria berezi hori.



IMANOL GALLEGO

Gaztetxoek eskutitzen zain

Olentzero eta Mari Domingi bisitan etorri dira. Udaletxeko atarian egokitu dieten etxolan daude, umeen bisitak jasotzeko zain. Hilaren 24ra arte egongo dira han. Izan ere, egun horretan etxola utzi eta kalerik kale ibiliko dira herrian barrena. Etxola egunero 16:30etik 20:00ra zabalik egongo da gutunak bertan utzi nahi dituenarentzat.

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Jolas

Barrenkale 27
BERGARA
Tel.: 943 76 46 48

Haur eta gaztetxoendako era guztietako jokoak.

Mizpirualde egoitzan, gaur, 'Aulki hutsak' dokumentala

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Mizpirualde zaharren egoitzan zine emanaldia izango dute gaur, 17:00etan. Emanaldia askotariko erabilerak dituen aretoan izango da.

Iñaki Peña medikuak zuzendutako lanak gertuko baten heriotzaren aurrean izan beharreko dolua eta itxaropena ditu bizkarrezur.

Heriotzaren osteko dolu-garaiari aurre egin dioten pertsonen testigantzek osatzen dute: "Gertuko pertsonen bat hiltzen zaigunean kaltegarria da gure mina geuretzako soilik gordetzea. Norbaiti kontatu, atera egin behar dugu atsekabe hori", dio dokumentalaren zuzendariak.

Horren ostean, solasaldia

Gero, dokumentalaren gai beraren bueltan, erizain geriatrikoa eta doluan aditu den Maite Urzainek solasaldia gidatuko du. Saioa ixteko, M. Albisturren oboearekin eta X. Bertzunen gitarrarekin musika emanalditxoak egongo da. Sarrerak doakoa izango den arren, plaza mugatuak egongo dira.



Kirol kontseiluko bilera, eguaztenean. | IÑAKI UGARTEBURU

Mugikortasun mahai bat sortuko dute urte hasieran

Kirol eta hirigintza ordezkariak gain, hainbat arlotako teknikariak bilduko ditu

MAIALEN TORRES | BERGARA

Eguazteneko VI. kirol kontseiluan, motorizatu gabeko bideak izan zituzten hizpide, martxan diren proiektuak azaldu zituzten udal ordezkariak eta euren ekarpena egitera gerturatutako hainbat herritarrek, Itziar jauregian.

Orain arte egindako proiektuen azalpenarekin ekin zioten bilerari. Batetik, iragarri zuten Antzulatik Bergarako sarrerara eta Elorregitik Labegarietara doazen bidegorri zatiak maiatzeko amaizuko dituztela. Hori bai, bigarren tarte horren azken

500 metroek denbora gehiago hartuko dute, tartean lurren desjabetzea egin behar delako. Bestetik, gogora ekarri zuten azoka pareko bidegorri zatia ere amaitzeaz dela, eta era beran, hamar bizikleta aparkaleku berri jarri dituztela herritarren esku.

Etorkizunari ere begiratu zioten, bi proiektu berri aurkeztuta. Lehenak herriaren sarreratik autobus geltokirako bidea egingo du eta besteak, berriz, herria zeharkatuko du, Gihartsu gimnasiotik, San Lorentzoraino. Proiektuen dimentsioa ikusita, lehentasunak finkatzea ezinbestekotzat jo du Ugarteburuk, baliabideak "mugatuak" direlako.

Mugikortasun mahaia

Orain arte kirol eta hirigintza arloetako ordezkariak Udaltzaingoarekin elkarlanean landu dute gai hori, baina aurrerantzean lanean jarraitzeko, mugikortasun mahaia sortzea erabaki dute. Gainera, bilera horietan ordezkariak zabalagoa biltzeko asmoa dute, eta, besteak beste, ingurumen, turismo, hezkuntza, obra eta zerbitzuak ordezkariak batuko zaizkio lantaldeari.

Parte-hartze irekia

Mugikortasun mahaia martxan jartzen denean, arlo horretako proiektu guztiak bilduko dituen plana aurkezteko asmoa dute. Plan hori, ordea, "irekia" izango da, Ugarteburuk azaldu duenez. Izan ere, ez dute Udalaren ikuspuntuarekin bakarrik aurrera egin nahi, eta, horregatik, oraindik nola egingo duten zehaztu ez badute ere, herritarren ideiak bilduko dituzte. Kontseiluan bertan ere jaso zituzten ekarpenak, eta, besteak beste, seinalizazioari, araudiari, eta bidegorrien diseinuari buruz aritu ziren.



Mus jokariak, iazko txapelketan. | IBON GABILONDO

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa urtarrilaren 3an

M.T. | BERGARA

Artatse Elkartea herriko mus jokari onenen topagune bihurtuko da urtarrilaren 3an. Izan ere, urtea behar bezala hasteko, Euskal Herriko VII. Mus Txapelketako herri mailako kanporaketa jokatu dute.

Garaileek 250 euroko saria jasoko dute eta bigarren bikoteak 150 eurokoa. Hirugarren eta laugarren postuetan, berriz, txerrikumea eta bi txuleta eskrutatuko dituzte, hurrenez hurren, baita sorpresa bana ere.

Izena emateko, bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu, Artatse Elkartean, kanporaketa hastera doan momentuan bertan.

Finalerako bidea

Bergaran sailkatzen diren bikoteak herrialdekako kanporaketara pasako dira. Sailkatuko den bikote kopurua ez da finkoa, Bergarako parte hartzaile kopuruaren arabera izango baita. Kanporaketa hori otsailaren 20tik 22ra jokatu da, baina tokia oraindik ez dago zehaztuta. Bertan sailkatzen direnek Euskal Herriko finalerako txartela lortuko dute. Martxoaren 7an izango da, Lekeition.

Herrialde eta Euskal Herri mailako kanporaketetan lau erregetara jokatu dute. Herri mailakoetan, berriz, hautazkoa izango da, tokian tokiko ohituren arabera.

'Ezekiel' liburua hizpide Jasone Osororekin

Joan den astean, Jasone Osoro Aranzadi Ikastolan izan zen, *Ezekiel* liburuaz iritziak elkarbanatuz DBH 2. mailako ikasleekin, eta liburuan Jasoneren hitzak eta sinadura jasotzeko ere aprobeztatu zuten. Oso gustura egon ziren.



ARANZADI IKASTOLA

Juantxo Madariagaren liburua aurkeztuko dute Olosa dorrean

Juantxo Madariagak bere eza-gutzatik abiatu zuen *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII* liburuaren sormen prozesua, eta gaur, Udalen eta Olosa fundazioaren eskutik 19:00etan aurkeztuko du. Liburuak, besteak beste, euskararen galera du hizpide, eta naturala ez, soziala, politikoa eta bortxatua dela dio.

Eskubaloian ordiziarren kontra lehiatu beharko dute Bergara KEkoak

Bihar, 18:30ean, Bergara KEk etxean jokatu du Ordizia ETren aurka. Aurreko jardunaldian bi goleko aldeaz egin zien ihes garai penak bergararrei; beraz, ordiziarren aurkako neurketan gogor saiatu beharko dute, sailkapenaren azken postuetatik irten nahi badute. Hori lortzeko, ziur harmailetan zaleen berotasuna eta babesa eskertuko dutela.

Cafes Aitona B izango du aurkari Bergara KE saskibaloia taldeak

Bergara KEk Cafes Aitona B taldea hartuko du etxean bihar, 16:30ean. Joan den astean MUkoen aurka izandako porrota ahaztu, eta jardunaldi hone tan puntu batzuk poltsikortzeko aukera izango dute bergararrek. Aurkariak sailkapenaren azken postuan dira, baina horrek ez du esan nahi lan erraza izango dutenik.

Sokari helduta giza eskubideen alde egingo dute herriko plazan

Sarek deituta 'Herria saretzen: mosaiko erraldoia' egingo dute bihar, 13:00etan; herritarrak gonbidatu dituzte Oñatiko sarea irudikatzeko

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Sarek deituta, *Herria saretzen: mosaiko erraldoia* egingo dute bihar herriko plazan. Hitzordu nagusia 13:00etan izango da, baina aurrez beste hainbat girotze-ekintza egingo dituzte. Gainera, ekitaldi nagusiaren aurretik proba bat egingo dute.

Sarea egiteko, sokari edo zintari heldu besterik ez da egin behar. Oñatiko saretik deialdia egin dute ahalik eta jende gehien batzeko: "Ekarri zuk zeuk ahalik eta lagun gehien ekitaldira: izan zu zeu ere saregilea!".

Dispersioaren amaiera

"Urte erdi inguru pasa da Sare herri mugimendua jaio eta bere ibilbideari ekin zionetik", azaldu dute taldeko kideek. Ordutik hona, ekitaldi ugari egin dituzte han-hemenka, mugimenduak ezarritako helburu nagusiari begira: "bidegabeko dispersioaren politikari" amaiera ematea. "Herri eta hirietan, talde eta gizabanakoen ekimenei esker, herritarren sarea ehuntzen doa", gaineratu dute. Eta Oñatin ere izan du eragina taldeak. Honela azaldu dute: "Oñatin ere sarea ehuntzen goaz, ikuspegi eta sentsibiltate askotariko herritarrak sare horren nodo bilakatuz".

Hain zuzen, herritar horiek beharrezkotzat jotzen dituzte sarea eraiki eta egonkortzeko, "beharrezkoak diren nodoak" direla diote. "Sarea anitza da, giza eskubide guztien alde, baita euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde ere badauden pertsona guztiak biltzeko bokazioaz sortu dugulako", gaineratu dute.



Oñatiko Sareko kideak Eteo eraikinaren aurrealdean ateratako argazkian. | SARE

"Talde eta gizabanakoei esker herritarren sarea ehuntzen doa"

"Sare erraldoia sortu, ehundu, nahi dugu, eta denak zaudete gonbidatuta"

Sarekide eta Saregile

Orain arteko lanaren emaitza ikusi nahi dute Sareko kideek: "Ikusgai egin nahi dugu Oñatin sortutako sarea". Ahalik eta herritar gehien elkartuz, hari batekin sinbolikoki elkarri lotuz eraiki dute sarea. "Sare erraldoia

sortu, ehundu, nahi dugu eta herritar guztiok horretara gonbidatzen zaituztegu", gaineratu dute Sareko kideek.

Sarekide eta Saregile egiteko gonbita egin dute taldeko kideek. Horretarako, bihar Oñatiko plazara joatea eskatu dute.

Sarea zergatik egin nahi duten ere azaldu dute. Horretarako arrazoi nagusiak hauek dira: bata parte-hartzea da. Giza eskubideak, baita presoenak ere, defendatuko dituzten pertsonak batu gura dituzte; bigarrena elkarlana da. Sarearekin defendatu gura dute elkarren beharra dagoela giza eskubideak defendatzeko; hirugarrena ekintzailetasuna da. Ezin dugu besoak gurutzatuta egon dispersioaren injustiziaren aurrean, pertsonak daude-eta tartean; azken arrazoia batasuna da. Ezberdinen arteko batura irudikatu eta bizi nahi dute. Horiek guztiak dira bihar plaza-joateko eman dituzten arrazoi nagusiak.

Presoekiko elkartasun kontzertua eta txapelketa

A.E. | OÑATI

Euskal preso eta iheslarien lagunek antolatuta, areto-futbol txapelketa jokatu dute abenduaren 26an eta 27an Zubikoa kiroldegian. 32 bat orduko txapelketa izango da, eta izena emango duten talde kopuruaren arabera antolatuko dute.

Izena emateko aukera abenduaren 23ra arte egongo da. Leku hauetan eman daiteke izena: Boga, Arrano, Pako eta Ongi tabernetan. Emakumezkoen eta gizonezkoen txapelketak egingo dituzte. Talde bakoitzean, gutxienez, bost jokalarik egon beharko dute, eta gutxienezko adina 14 urte izango da.

Finala abenduaren 27an jokatu dute, 19:00etan. Eta finalaren ondoren, sari bana-keta ekitaldia egingo dute: talde irabazleak eta golegile nagusiak eramango dute saria (bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere).

Kontzertua gaztetxean

Bestalde, biharko, zapatua, kontzertua antolatu dute Antixena gaztetxean. Banda Muni-zipalari Tributoa, Marianitoz Blai! eta ONHC taldeak igoko dira taula gainera. Kontzertua 22:00etan izango da eta sarre-ra 2 euro da.

Hilaren 31n, manifestazioa

Urtero moduan, presoekiko elkartasun taldeak manifestazioa deitu du hilaren 31rako. Plazan hasiko da manifestazioa, 19:00etan.

Amaitzeko, gogora ekarri dute Sarek urtarilaren 10ean Bilbon egingo duen manifestazioarekin bat egiten dutela. Hala, hara joateko dei egin diete herritarrei.

Oñatiko artisauen lanak erosteko aukera egongo da bihar plazan

A.E. | OÑATI

Oñatiko artisauen azoka egingo dute bihar, bigarren urtez jarraian. Plazan jarriko dituzte postuak; bederatzi, hain zuzen. Asmoa da oñatiarrek egiten dituzten artisau lanak jendeari erakustea eta, bide batez, herritarrek horiek erosteko aukera izatea.

Denetarikoa lanak egongo dira: umeendako arropak, osagarriak, bitxiak, buztina... Parte hartuko duten artisauak izango dira: Iñaki Jauregialtzo zeramikagilea; Dorleta Fernandezek poltsak, nezeserrak, diru-zorroak... eramango ditu; Edurne Ugartek eskuz egindako osagarriak jarriko ditu salgai; Marije Leibarrek berak

egindako kamisetak erakutsiko ditu, *patchwork* teknika erabiliz jositakoak; Ane Larreategik haur txikiendako osagarriak eta nagusiendako zorroak eramango ditu; Lide Osinagak haur eta helduendako osagarriak; Mirari Sagar-sazuk eskuz margotutako eta estanpatutako kamisetak; Ainhoa Quesadak eta Gemma Muñozek *miyuki*-arekin egindako osagarriak eta *fofucha* eta goma evazko panpinak; eta Lavandulako Ainhoa Aranburuzabalak eta Ainara Behobidek kosmetika eta ukendu naturalak jarriko dituzte salgai. Horiek guztiak ikusteko eta erosteko aukera egongo da bihar.



lazko artisau azoka. | GOIENA

Azoka ona izaten da

Iaz egin zuten lehenengoz Gabonetako azoka, eta gustura geratu ziren parte-hartzaileak. Gabon egun hauek egun aproposak izaten dira horrelakoetarako.

Zozkatu dituzte 74 ortuak 66 eskatzaileen artean

A.E. | OÑATI

Ekimena martxan jarri zenean 150 eskari jaso ziren arren, azkenean 66 herritar izan dira 74 lursailletarako zozketan sartu direnak. "Hasiera baten izena ematea erraza ikusten da, baina gero, behin baratzea eta horrek dakarren lana ikusita, batzuek atzera egin dute. Baina balorazioa ona: aurreikusitako ia lursail guztiak bete dira, eta uste dugu aurrera jarraitu duten gogoz hartuko dituztela", azaldu zuen Aitor Gerenabarrena, Oñatiko Udaleko Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak.

Libre dauden lursailak

Libre geratzen diren lursailak Udalaren esku geratuko dira. "Erabakitzeke dago lursail horien zer egin: kolektibo bereziendako izan daitezke, eskolekin erabiltzeko...", dio Gerenabarrena.

Bada, lursailak zozkatuta, erabiltzaile izango direnekin harremanetan jarri da Udala, Udalaren plangintza azaldu, eta baita elkarte sortzeko egin beharreko urratsak azaltzeko ere. Prestakuntza saioak ere egingo dituzte, ziurrenik, urtarilean.

Herriko bertsolaritzaren historia 'Oñatiko hitzen altxorra' liburuan

- Martitzenean aurkeztu zuten jendaurrean Urko Egaña bertsolariak idatzi duen liburua
- Hainbat iturri erabilia, askotariko testigantzak eta materiala batu ditu egileak

TXOMIN MADINA | OÑATI

Duela bi urte hasi zen Urko Egaña *Oñatiko hitzen altxorra* idazten. "Oñatiko Bertso Eskolaren 30. urteurrenaren aitzakian planteatu genuen. Testigantza ezberdinak jaso ahala, egitura bat osatu nuen, eta, hari denetatik tiraka, puzzle bat osatzen joan gara", dio egileak.

Egañaren esanetan, liburuak dituen 265 orrietan, bertsolaritzaren eta Oñatiren azken 130 urteetako harremana lantzen da. "Ez da oñatiarrek Oñatin egindako jarduna bakarrik jasotzen, baizik eta Euskal Herri osotik Oñatira egindako ekarpen ezberdinak jasotzen saiatu naiz. Guk dakigunez,

esaterako, lehenbiziko kasua Iparragirrena da: Oñatira etortzean, Oñati bertsoen bidez ezagutarazten digu, eta Aloña Mendi izenburupean daude jasota liburuan".

Hainbat aro lantzen dira bertan, eta material ugari jaso du egileak: "Bertso-paperak daude, bat-bateko saiakerak, txapelketak... Oñatin bertan bertsolaritzaren inguruan lan egin duen jendearen presentzia ahalik eta gehien nabarmentzea ere gura izan dut".

Materiala jasotzeko hainbat iturri erabili ditu; besteak beste, herritarren testigantzak, grabazioak eta argazkiak, eta baita Xenpelar Dokumentazio Zentroa

eta Oñatiko Udala ere.

"Atzera begira jarrita, ikusi dut gure adineko bertsolariek, bere garaian, guk beste plaza egiten zituztela. Lagunarte zabalaren, gero Bertso Eskola ekarri zuena. Egun Oñatin bertsolaritza osasuntsu badago, lehen egindako lanari esker da", dio Egañak liburuaren atera dituen ondorioez galdetuta.

Liburuaren azala Mirari Sagarzazurena da, eta bertan, hiru belaunalditako bertsolarien aurpegi zatiekin aurpegi oso bat irudikatu du: Benito Barrena, Joseba Lasagabaster eta Maider Arregi dira bertsolari horiek.

Hitzaurrea, Andoni Egañak

Martitzenean aurkeztu zuten liburuaren, eta bertan izan zen hitzaurrea idatzi duen Andoni Egaña: "Azken 30 urteotako kontuak ezagutzen nituenenez, pasarte zaharragoak egin zaizkit deigarriak: Grazianoren bertsoak, Basarriekin bertsoan izan zuen ika-mika, Nikolas Seguiolaren zenbait pasarte, Iparragirre doinuaren jatorria Oñatitik hasita argi daithekeela... Ahalegina bera da txalotzekoa. Herri guztietan gauza bera egingo balitz, ondare osatu samarra eratuko genuke".

Egileaz eta Andoni Egañaz gain, aurkezpenean Iñaki Olalde

dek eta Benito Barrenak ere hartu zuten parte. Barrenak, esaterako, gaztetan Araotzen bertsoan nola aritzen ziren kontatu zuen, eta, besteak beste, gogoratu zuten Sebastian Lizasok Araotzen egin zuela debuta. Sorpresak ere ez ziren falta izan; hala, duela 30-35 urte Imanol Lazkanok eta Joxe Agirrek egindako bertso saio bateko grabazioa eman zuten, eta hainbat argazki erakutsi zituzten.

Liburuaren 800 ale atera dituzte, eta herriko liburu-dendetan salduko dira; baita Turismo Bulegoan eta Bertso Eskolak antolatutako ekitaldietan ere.



Iñaki Olalde, Benito Barrena, Urko Egaña eta Andoni Egaña, martitzeneko aurkezpenean. | T.M.



Urko Egaña, liburuaren ale bat eskuetan duela. | T.M.

Bihar erabakiko da aurtengo bertsolari txapelaldunaren izena

- 18:00etan hasiko da finala; sei bertsolari arituko dira nor baino nor gehiago

M.A. | OÑATI

Oñatiko VII. Bertsolari Txapelketako finala egingo da bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan hasita. Aurretik, baina, giroa berotzeko musika saioa izango da Bi lautan taldearen eskutik. 17:30ean hasiko da hori. Saioaren ondoren afaria egongo da eta gero, 23:30etik aurrera, Oba neuke erromeria taldeak giroa du gaztelekua. Arratsalde osoko jaia, beraz, Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta duena.

Finalerdi bana irabazita, Maider Arregi eta Joseba Lasagabaster dira finaleko lehen lehakideak. Kanporaketatan puntuazio altuenak lortu dituzten eta ondorioz finalean izango diren gainerakoak dira Andoni Goitia, Egoitz Aizpuru, Gorka Larrea eta Urko Egaña. Sei horien arteko lehia izango da beraz, biharkoa.

Egin beharreko lana

Zortziko handian eta txikian egin beharko dituzte bertsoak eta bakar-kako lana ere egin beharko dute;

bertsolari bakoitza egokitzen zaion gai horren gainean jardun beharko da. Buruz-burukora pasatuko dira hortik eta saio horretan puntuka aritu beharko dira; kartzelako ariketa ere egingo dute.

Gai jartzaile lanetan ibiliko da Mirari Sagarzazu eta epaimahaia osatuko dute Julen Iriondok, Nerea Etchezarretak, Iker Jimenezek eta Beñat Alberdik.

Irabazleak sari sorpresa jasoko du; publikoaren saria ere egongo da aurtengoan.

Bihar banatuko dituzte erakusleho lehiaketako sariak

Bihar, zapatua, banatuko dituzte VII. erakusleho lehiaketako sariak. 13:30ean izango da ekitaldia, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Herriko 38 komertzio hartu dute parte aurtengo erakusleho lehiaketan eta bihar jakingo da horietatik zeintzuk diren onenak, epaimahaiaren usteetan. Aurtengo zazpi sari banatuko dira: ohiko bostak, herritarren gustukoena eta, azkenik, erakusleho birtual onenaren saria. Azken sari hori hartarako propio osatutako epaimahai batek emaniko du. Sariak txantxitan banatuko dituzte; guztira, aurtengoan, 4.500 txantxi.

Urtarrilaren 11n Irrien Lagunak Antixeneko gaztetxean

Umeendako eskaintzarik ere ez da faltako Gabonetan Antixena gaztetxean; izan ere, aurtengo hirugarrenez, Irrien Lagunak klubekoak etorriko dira. Hain zuzen ere, magiaz beteriko saioa eskainiko dute Irrien Lagunek; euren azken ikuskizuna egingo dute, *Hodei magoa eta Tiritatxo*. Ikuskizuna urtarrilaren 11n, domeka, izango da, arratsaldeko bostetan. Emanaldirako sarre-rak aurrez eskuratu ahal izango dira. Hain zuzen, Gabonetako oportetaren herriko plazan ipiniko dituzte salgai eta urtarrilaren 7tik 9ra ikastetxeetako kanpoaldean eskuratu ahaliko dira.

Olentzero eta Mari Domingi Otadui zuhaiztitik iritsiko dira umeengana

Kultura Saila Errege magoen papera egingo duten herritarren bila dabil

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Dagoeneko gertu dauka Udaleko Kultura Sailak Gabon jaietako egitaraua. Musika, umeendako ekitaldiak eta, zelan ez, etxeko txikienek horrenbeste maite duten Olentzero izango dira, besteak beste.

Musikak eta abesbatzek tarte zabala izango dute Gabonetan. Bihar, esaterako, musika eskolako ikasleek eta txistulari taldeak Gabon kanten kontzertua egingo du Jose de Azpiazu musika eskolako akordeoi taldeak; eta 19:00etan, plazan, Oñatiko Musika Bandaren Gabon kanten kontzertua izango da.

Musika eskolako ikasleek, gainera, astelehenean kontzertua eskainiko dute nagusien egoitzan, 18:00etan.

Olentzero eta Mari Domingi

Egun hauetako ekitaldi nagusienetako bat, eta herritar gehien batzen dituen, Olentzeroren eta Mari Domigiren etorrera da. Hilaren 24an, 17:30ean, irtengo dira Otadui zuhaiztitik Olentzero eta Mari Domingi. Ez dira bakarrik etorriko: laguntzaile lanetan izango dituzte Jose de Azpiazu musika eskola eta Hai-zondo kuadrilla. Betiko moduan,



Olentzero Oñatin, haur batekin. | GOIENA

herriko kaleetan ibili ondoren, plazan egingo diete umeei harre-ra. Horrez gain, 18:00etan, plazan, Gabon kanten kontzertua egingo du Jose de Azpiazu musika eskolako akordeoi taldeak; eta 19:00etan, plazan, Oñatiko Musika Bandaren Gabon kanten kontzertua izango da.

Errege magoak falta dira

Kultura Sailak deialdia egin du Errege magoak bilatzeko. Azken urteetan egin izan den moduan, aurten ere udaletxeko aretoan harrera egingo dute Errege

magoek. Bada, dagoeneko badaukate Baltasar erregearen papera egingo duen pertsona; baina ez Meltxorren eta Gasparren pape-rak egingo dituztenak. Hortaz, interesa dutenek Kultura Sailarekin jarri behar dute harremanetan, kultura@oinati.net edo partehartzea@oinati.net helbidean.

Erregeen harrera urtarrilaren 5ean izango da, 18:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, haur eta gaztetxoendako. Errege bezperako bertso saioa ere ez da faltako aurten: 22:30ean izango da, Zubikoa kiroldegian.

Herriko kirolarien lana eta esfortzua sarituko dituzte gaur udaletxeko osoko bilkuren aretoan

Banatuko dituzten sarien artean dago Herritarren Saria; hain zuzen ere, herritarrek bozka bidez aukeratutako kirolariari banatuko diote sari hori. Hautagaiak hauek dira: Jokin Garai, Ariadna Burgos eta Mikel Ugarte. Horiez gain, beste hainbat kirolari edo kirolaren inguruan lan egin dutenak sarituko dituzte. Gaur izango da ekitaldia, osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Txistor-jana eta dantzaldia egingo dute Pake Lekun bazkideendako eta bazkide ez direnendako

Pake Leku elkarteak txistor-jana antolatu du gaurko. Elkartean bertan egingo dute. San Tomas eguna aitzakia hartuta, txistorra banatuko dute; aurrez saldu dituzte txartelak bazkide direnen eta baita ez direnen artean ere. Ondoren, dantzaldia egingo dute han batzen diren erretiratuekin eta herritarrekin. Denen gustuko musika jarriko dute.

Body balance, zumba eta fit-bike saioak egingo dituzte gaur, 17:15ean hasita, kiroldegian

Fitness jaia egingo dute gaur, egubakoitza, Zubikoa kiroldegian. Interesatuak gura beste ekintzatan izena emateko aukera izango dute. Ohiko erabiltzaileendako doan izango da; bazkide bai baina erabiltzaile ez denak 3 euro ordaindu beharko ditu; eta bazkide ez direnek, 5 euro. Body balancea 17:15etik 18:15ak arte izango da; zumba, 18:15etik 19:15ak arte; eta fit-bikea, 18:30etik 20:00etara.

'Carmina Burana' Carl Orff-en obra ospetsuaren entsegarako sarrerak ere salduko ditu Ganbarak

Ganbara Abesbatzak aurkeztu behar duen obra ospetsurako sarrerak dagoeneko agortu dira; bada, hori kontuan hartuta, entsegu orokorrerako sarrerak jarriko dituzte salgai, 7 euroren truke. Txokolateixia dendan edo ganbara.sarrerak@gmail.com helbidean eros daitezke sarrerak. Entsegu orokorra abenduaren 28an izango da, 19:30ean, pilotalekuan.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Hondakinen gaineko galdeketari ezetza

Bosgarren edukiontziaaren aldeko plataformari erantzun dio udalbatzak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Uztailaren 14an, atez ateko hondakin bilketa sistema martxan jarri zen egun berean, aurkeztu zuen udaletxean bosgarren edukiontziaaren aldeko plataformak kontsulta egiteko eskaera. Bilketa sistemaren gaineko herri kontsulta egiteko eskaera zen eta herritarren %15ek baino gehiagok sinadurekin babestu zutela hori zioten. Eskaera hura eguaztenean egindako ezohiko osoko bilkuran eztabaidatu zuten, eta Udal Gobernuak ezetza eman zion.

Sistematik eraginkorra

Lore Martinez Axpek, Ingurumen zinegotziak, hiru arrazoi eman zizkien bosgarren edukiontziaaren aldeko plataformakoei kontsultari ezetz esateko: "Batetik, egin nahi den galderagatik, erreminta galdetzen delako, helburua zehaztu barik; bestetik, prozesu bat egin zelako bere garaian bilketa sistematik eraginkorra aukeratzeko; eta azkenik, abian jarritako bilketa sistema gaur egun eraginkorra delako, lortutako emaitzek baieztatzen duten legez". Eta aretxabaletarrak zoriondu zituen "gaikako bilketan erreferente izateko moduko datuak lortu direlako".

PSE-EEko zinegotzi Jorge de Castrok galdera bota zien Bildukoiei: "2011n Mankomunitateak gutuna bidali zuen esanaz atez



Udalbatzako kideak eta bosgarren edukiontziaaren aldekoak eguaztenean. | M.A.

ateko bilketa sistema jartzeko asmoa zuela; hortaz, zergatik esaten duzue parte-hartze prozesu baten ostean onartu zela?". Aralarko Inaxio Garrok ez zuen "eztabaida antzuetan" sartu gura izan, baina parte-hartzea bultzatzen dabilen Udalak halako eskaera bati ere bere lekutxoia egin beharko liokeela zioen.

EAJko Haritz Solupe, oster, ez zen ados agertu moduarekin: "Uztailaren aurkeztu eta abendu-ko azken osoko bilkurara ekarri dute; herritarren %15 ekimen horren atzean egonik, errespetua merezi dute". Eta jarraitzearekin ere ez: "Parte-hartze prozesuak, ideia zaparradak eta antzekoak esan bai, baina gero iritzi ezber-

dina duena aurrez aurre izanda-koan negoziatzeko gai ez eta norberarena inposatu".

Bosgarren edukiontziaaren aldeko plataformako kideei ere eman zieten hitza eta horietako batek leporatu zion alkateari: "Bilketa sistema martxan jarritakoan herriari hitza emango zeniola esan zenuen. Hortaz, zergatik ez galdetu orain?". Bukar-eran "etsita" agertu ziren, baina lanean jarraitzeko asmoarekin.

Bozketa garaian ez zuten bozkatu herri kontsultari bai edo ez, Udal Gobernuak plataformari emandako erantzunari bai edo ez baizik. Bildukoak horren alde agertu ziren eta gainerakoak, Aralar, EAJ eta PSE-EE, aurka.

Larrialdi-gunea martxan egongo da Gabonetan

M.A. | ARETXABALETA

Gabon jaietan -gainerako egu- netan legez- etxean pilatuko diren hondakinak -edozein era- takoak- larrialdi-gunera eraman ahal izango dituztela aretxaba- letarrek gogorarazi dute Deba- goieneko Mankomunitateko kideek. Horretarako, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943-25 22 88. Deitutakoan, lau digituko kode bat emango diote interesatuari, eta horre- kin, Markole auzoan dagoen larrialdi-guneko atea zabaldu ahal izango du.

Bilketa egunen aldaketa

Bestalde, hondakinak jasotzeko zerbitzuan hainbat aldaketa egingo dituztela Gabonetako jaiegunetan jakinarazi dute Mankomunitateko ordezkariak. Hala, abenduaren 24an eta 31n, ontzi arinak gauean jaso behar- rean eguerdian jasoko dituzte. Horregatik, 13:30erako atera

beharko dituzte herritarrek.

Hilaren 25ean eta urtarri- laren 1ean, oster, ez da jasoko komertzioetako kartoirik, ezta hondakin organikorik (zapatua izango da hurrengo eguna).



Banatuko den imana. | MANKOMUNITATEA

Markel Uriarte bihar eta ekintza mordo Gabonetan, gaztelekuan

M.A. | ARETXABALETA

Markel Uriarte txirrindulari aretxabaletarraren bisita izan- go dute bihar, zapatua, gazte- lekuan. Azken hilabeteotan zeresana eman du Uriartek ekintza ikusgarriak egin ditue- lako; adibidez, gupil bakar- ren gainean igo zuen Tourma- let mendatea. Hura protagonis- ta den hainbat bideo ikusiko dituzte, eta gero, gazteekin kontu-kontari jardungo du.

Abenduaren 28an, domeka, tobera antzerki satirikoa ikus- tera joango dira Ibarra kirol- degira, 19:00etan, eta ondoren, Euskal Selektzioaren festa egin- go dute Atxagazte gaztelekuan; Eskoriatzako gazteak ere gon- bidatu dituzte.

Abenduaren 29an, oster, urteari bukaera dotorea ema- teko, *Gau eleganteak* ospatuko dute bi gaztelekuan, Aretxa- baletakoan eta Eskoriatzakoan.

Euskal Selektzioaren festa

Gabonetako jaiegunetan ere ez dute aspertzeko astirik izango gaztetxoek; horietako hainbat ekintza, gainera, Eskoriatza- koekin batera egingo dituzte.

Abenduaren 27an, zapatua, emozioak lantzeko tailerra izan- go dute Sutraiabari elkarteko kideekin Eskoriatzako gaztele- kuan. Tailer horretan, txakurren jarrera behatu eta emozioen gainean jardungo dute gero.



Markel Uriarte. | IBEROBIKE

EAJk dio Bilduk "ardurarik gabe" jokatu duela kiroldegiarekin

M.A. | ARETXABALETA

EAJko udal taldeak kiroldegia- ren gaineko ikuspuntua eman gura izan du. "Udal Gobernuak gai hone- kiko izan duen jokaera guztiz arduragabea izan dela uste du. Inoiz ez du eduki aldi baterako enpresen elkarleak jarraitu ze- zan interesik, kontrakoa esan arren. Hilabeteak joan dira erabakirik hartu gabe eta azken momentuan, inorekin kontatu gabe eta presaka, kudeaketa eredu aldaketa eraba- ki du", jakinarazi du Mikel Uri- betxebarria zinegotziak.

EAJko kideek onartu dute aldi baterako enpresa elkarle horrek zehaztutako gestio plana "ez dela bete", batez ere bazkide kopuru- ari dagokionez, baina horrek ez duela esan gura plangintza gaiz- ki eginda zegoenik: "Bazkide kopu- ruaren estimazioa Udalak agin- dutako azterketan oinarritu zen eta aurreikuspena ondo egina zegoen, 2012an kontratua sinatu

zenean Udal Gobernuak berak aitortu zuen moduan".

Hala, 2014a %81eko autofinan- tzazio mailarekin bukatuko due- lakoan dago enpresen elkarlea, eta 168.000 euroko defizitarekin. Horre- gatik, EAJkoek esan dute: "Auto- finantzazio maila hori kirol insta- lakuntza gutxiak dute". Aldi bate- rako enpresa elkarleak, baina, ezin duela defizita "bere gain" hartu esan dute, eta horren aurrean "bi aukera" zeudela: batetik, enpresa elkarlearen eta Udalaren arteko elkarlana; eta bestetik, sinatutako kontratu barruan defizita oreka zezaketen aukerak aztertzea. "Uda- laren prozedura kanpotik abokatuak kontratatu eta enpresen elkarlea- rekin kontratua etetea adostea izan da", dio Uribetxebarriak.

Enpresa elkarleak lau eskae- ra egin zizkion Udalari, eta horie- tatik hiru "betegarriak" ziren, EAJkoen ustetan: 2012ko galerak Udalak bere gain hartzea; kirol

politika municipal Udalak ordain- tzea; eta uraren kostua ez apli- katzea. Eta gainera, "negoziatze- ko borondatea" agertu zuela enpresak diote. Baina Udalaren aldetik "ezezkia" jaso zutela.

Azterketa "seriorik" ez

Gaia aztertu eta erabakiak har- tzerakoan "geldotasuna" eta "gar- dentasunik eza" izan direla nagu- si diote. Eta kiroldegia- ren kudea- keta bere gain hartzea erabaki duela Bilduk, beste taldeen iritzia eskatu ere egin gabe eta erabakiak denboraz hartu gabe. Eta inolako azterketa ekonomiko "seriorik" ez duela aurkeztu gaineratu dute.

"Udalaren ardura da zerbitzu horiek ahalik eta era eraginkorre- nean ematea, eta horretarako ere- du aproposena aukeratu beharra du erabakiak azterketa zehatzetan oinarrituz", diote EAJko kideek, eta "aukera on bat" galdu dela erabaki politiko baten ordainetan.

Mitarte 16
ARETXABALETA
943 79 01 72

ERLOJU DENDA - BITXITEGIA

ERRETIROAGATIK
%30eko
deskontua bitxietan

Eskerrik asko
denoi eta Gabon
zoriontsuak izan!

Ekuadorko kakaoa eta Mozambikeko anakardoak, Hiruatxen azken fruituak

Aretxabaletako GKEk bi proiektuen berri eman du

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gabonak ate joka daude eta Hiruatx gobernuz kanpoko era-kundeak, ohitura duen legez, martxan dituen bi proiektuen gaineko azken nobedadeen berri eman gura die aretxabaletarrei.

Proiektuetako bat Mozambikeko iparraldean dabil lantzen Hiruatx, anakardoaren ekoizpe-na sustatzen, hain zuzen ere. Helburua da Balama eskualdeko nekazarien bizi baldintzak hobetzea. Hala, anakardo zuhaitzak landatu dituzte eta landareen haztegia eraiki ere bai. Eta horretarako, prestakuntza eta laguntza teknikoak eskaini diete, baita landatzeko eta tratatzeko beharrezko guztia ere: landareak, tresnak... Hamabi hilabetea 150.000 euro inbertitu dituzte, eta nekazari ekoizpena 500.000 euro izan da. Hortaz, Hiruatxeko kideak oso pozik daude, "600 lanpostu iraunkor" sortzearen baliokidea dela kopuru hori.

Kakaoa ekoizten Ekuadorren

Bigarren proiektua (Soraluze kooperatibak lagunduta) Ekuadorren dabilta garatzen. Kakao ekologikoa ekoizten dihardute Ekuadorko Amazonas aldean dagoen Winak kooperatibarekin. 256 bazkide ditu kooperatiba horrek, eta helburua da haien ezagutzak eta baliabide ekonomikoak hobetzea, bizi baldintza duinagoak izan ditzaten.

Mikrokreditu sistema indartzen lagundu dute Hiruatxeko kideek, eta kooperatibak berak hazitegia eta laguntza teknikoak eskaintzen die. Azken uza 60



Mozambikeko hainbat lagun anakardo haztegian. | HIRUATX

tonakoa izan da, eta, orain arte herrialde barruan bakarrik saldu badute ere, hasita daude Mexikora eta Italiara kakao ekologikoa saltzen. Hala, 150.000 dolarreko diru sarrera izan du kooperatibak.

Telefonoak jasotzen

Bestalde, Hiruatxek bat egin du Alboan GKEk abian jarritako *Gatazkarik gabeko teknologia* kanpainarekin. Horrekin ezagutzera eman gura dute telefono mugikorrek, tabletek eta ordenagailuek Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeko gerrarekin duten lotura. Hala, diotenez, telefono mugikorrak birziklatze-ri eta berrerabiltze-ari esker, mineral gutxiago atera behar dira Kongoko ekialdean, eta Aretxabaletan ere kaxak jarri dituzte telefono zaharrak jasotzeko. Arkupeko harreran eta kiroldegian daude kaxa horiek.



Emakumea kakaoarekin. | HIRUATX

Bidezko merkataritza denda

Eta Gabonen atarian egonda, bidezko merkataritzako denda jarriko dute Hiruatxeko kideek bihar goizean, 10:30etik 14:30era, udaletxe zaharrean.



LASA

Xake jokalarien harrobia

Hiru aretxabaletar izan ziren Abadiñon joan den aste bukaeran jokaturako umeendako xake txapelketan (100 umetik gora elkartu ziren). Harri Lasak hirugarren postua eskuratu zuen kimuen atalean; eta Galder Bengoak benjaminetan eta Urtzi Lasak txikietan ere bikain jardun zuten. Hala, hirurak itzuli ziren garaikurrekin.

San Tomas eguna ospatuko dute Basotxon domekan, dokean jokatu eta txorizoa janda

Dokean jokatura hasiko dute San Tomas eguna domekan Basotxon. 11:00etan, Basotxoko bertako lorategian jokaturako dute norgehiagoka UDAko eta Basotxoko zuzendaritza batzordetako kideek. 17:00etan, oster, 40 saski zozketatuko dituzte bazkideen artean eta ondoren txorizo-ogitartekoa jango dute, musika lagun.

Arkupen harrera zerbitzua emango duen lagun bat hartu gura du Udalak hiru hilabete eta erdirako

Arkupe kultur etxeko harrera zerbitzuaz arduratuko den pertsona bat kontratatuko du Udalak (Lanbideren diru laguntzari esker), egun osoz eta hiru hilabete eta erdirako. Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko, Lanbiden izena eman beharko da abenduaren 23rako. Argibide gehiago, webgunean: Aretxabaleta.eus.

Barreterapia tailerra egingo dute, bi saio eginda: bata abenduaren 27an eta bestea urtarrilaren 3an

Barrea erabiliz norberaren ongizate fisiko eta psikologikoa hobetzean oinarritutako teknika multzoa erakutsiko dute bi saiotan Algaraka taldeko kideek. Abenduaren 27an barreterapiari sarre- egingo diote eta urtarrilaren 3an, barre egitetik hazkuntza pertsonalera salto (11:00-13:00). Izena emateko, idatzi: zorione@algaraka.org; edo deitu: 669 97 46 65. Prezioa 10 euro da.

Organo eta soprano kontzertua domekan

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta Abesbatzako kide Mariatxen Urkia sopranoak kontzertua eskainiko du domekan, 19:00etan, parrokan, Jose Luis Franzesena organo-jolea lagun duela.

Organoarekin hasiko dute ekitaldia, Alexander Gujilman-tek konposatutako *Martxa* Gabon kantuarrekin. Eta gero tartekatuko dituzte organorako kantuak eta Urkiak abestutakoak; besteak beste, Resurreccion Maria Azkueren *Birjiña Maite*, Orre Mari Domingi herri-koia eta Emiliano Barandiaran eskoriatzarraren *Agur Josutxo*.

Gabon kontzertua 27an

Abenduaren 27an, zapatua, oster, Aretxabaleta Abesbatzak eskainiko du kontzertua,

19:30ean, Gabonetan ohikoak diren kantuekin: *Ave Maria*, *Alleluia*, *Oi Betlehem...*

Doinu goxoak Gabonei ongiatorria emateko

Leizarra musika eskolako ikasleek Gabon doinuekin girotu dute astea. Martitzenean, hainbat instrumentutako ikasleek eman zuten kontzertua, beste batzuen artean gitara-joleek, txistulariek eta biolin-joleek eta kantuan ere egin zuten neska-mutikoek. Atzo, oster, bandako kideek girotu zuten parroikia.



M.A.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Auzo-konpost guneak egokitze lanak martxan

- Lanak hasi dituzte Sagastin: zorua prestatzen eta zelosiak ipintzen
- Aurreikuspenak betetzen badira, urtarrilean hasiko dira konpostarekin

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Auzo-konposta egiteko proiektuan beste pauso bat eman du Udalak. Konpost-guneak egongo diren lekuak egokitze lanak hasi dituzte. Hain justu ere, Sagastin hasi dira lanak: lurak prestatu, hartxintxarra bota, zelosiak jarri eta sarrerak egin. Ondoren, konpostagailuak jarriko dituzte, eta Sagastikoan informazio panela.

Sagastikoa da herritarrekin adostutako guneetako bat. Baina, guztira, sei egokituko dituzte: Sagasti auzoan, bizikletak garbitzeko gunetik errepide nagusira artean; Ibarrondokoa, bi eraikuntza nagusien erdian dagoen txabolatik erreka babes-teko hesiaren artean; Antiguakoa, edukiontziak zeuden lekuan, ermitatik gertu; Errekaldekoa, etxeen eta Ertzile baserriaren artean; Eguzki auzokoa, San Joxepeko ekarpen gunean ondoan;



Sagasti auzoan hasi dituzte konpost gunea egokitze lanak | MIREIA BIKUÑA

eta Lizarraga kalekoa, kamioiak Elayra sartzeko erabiltzen duten bidean. "Lanak asteen hasi dituzte, eta, aurreikuspenak betetzen

badira, urtarrilean hasiko dira antzuolarrak konposta egiten", esan dute udal arduradunek. Gune bakoitzean bi ontzi –horie-

tako bat produktu lehorrena izango da, erabiltzaileek haien premia badute erabiltzeko– eta kutxa bana ipiniko dituzte.

DATUA

40

HERRITAR

Horiek dira auzo-konposta egiteko izena eman duten herritarrak. Aurretik, ikastaroa egingo dute.

Ikastaroa

Udalak egindako deialdira 40 familiak eman zuten izena: Antiguan lau, Eguzkin sei, Errekalden hamalau, Sagastin hamar, Ibarrondon lau eta Lizarragan bi. Familia horiek prestakuntza jasoko dute. "Ikastaroa egingo dute guztiek. Auzoka. Bi orduko saioak izango dira eta konpost-guneak nola erabili ikasiko dute", diote Udaletik. Udal langileek ere jasoko dute prestakuntza, ondoren guneei jarraipena egin eta erabiltzaileen kezkak eta dudak argitzeko. Auzo-konposta egiten dutenek %25eko hobaria izango dute.

Eguneko 213 gramo

Udalak egindako aurreikuspenen arabera, auzo-konpostaren bidez kudeatutako frakzio organiko kopurua hileko 747,63 kilo da. Estatistika Institutuaren arabera, Antzuolako batez besteko pertsona kopurua familia bakoitzeko hiru da, eta, horren arabera, pertsona bakoitzak 213 gramo bio-hondar sortzen ditu egunean.

Olentzero eta Mari Domingi kantuz hartuko dituzte herritarrek

M.A. | ANTZUOLA

Lehen aldiz, abenduaren 24an, 18:30ean, Olentzero eta Mari Domingi San Josetik jaistean, Herriko Plazara zuzenean joan aurretik, bidean zehar abestu egingo diete herritarrek. Horren ondoren, ekitaldi nagusia izango da eta txikitxoek gutuna emango diete Olentzeroren laguntzaileei.

11:00etan, baina, herri eskolako ikasleen eta gurasoen eskutik kalejira izango da Errekaldetik abiatuta –euria egiten badu, eskolako patioan–. Aben-

duaren 26an, gaztetxean, kontzertuak izango dira, Hibakusha eta Taupada taldeekin.

Urte berriari ongietorria emateko, urtarrilaren 1ean, Arrolan, salda eta txistorra banatuko dute, ohiturari eutsiz.

San Tomas festa

Abenduaren 21ean, txistularien kalejira izango da, 10:00etan, herriko kaleetan. Gazte txokoek Zurrategin txorizo-pintxoak jarriko dituzte salgai, 18:30ean; baita Euskararen Egunerako egindako txapak ere.

Abenduaren 22an, astelehenan, Landatxo elkartearen txistor-jana egingo dute, bazkideentzat, 17:30ean; eta karta txapelketako sari banaketa egingo dute.

Astelehen arratsaldean, abenduaren 22an, Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute, 18:30ean, Torresoroan.

Haur parkea, urtarrilean

Herriko txikitxoek urtarrilaren 4an, domekan, dute haur parkeaz gozatzeko aukera. Ohi bezala, eskolako patioan jarriko dute, goizez eta arratsalde: 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, hain zuzen ere.



Mari Domingi eta Olentzero. | GOIENA

Maite Telleria: "Auzoko egitasmoaren gainera balorazioa oso positiboa da"

Hamabi auzokidek eta hamalau auzotarrek hartu dute parte saioetan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Maiatz bukaeran jarri zen abian euskaratik urrun dauden herritarrak euskaratzeko Auzoko egitasmoa. Hala, *auzotarrak* –euskaratik gertu daudenak– eta *auzokideak* –euskaratik urrun daudenak– euskara modu ludikoan ikasteko helburuarekin bildu dira eguaztenero.

"Herriko talde eragileekin parte hartzen saiatu gara, eta, inplikazio horri esker, Auzoko dinamiketara etorri direnek harremanak sustatu dituzte. Modu horretan, eguneroko bizitzan, errazagoa da lehen hitza euskaraz egitea", azaldu du Maite Telleriak, Auzokoren dinamizatzaileak. Izan ere, elkar ezagutzeko aukera dute eta kalean euskaraz zuzentzea errazten zaie *auzokideei*. Jarduera puntualetan, beste pertsona batzuekin batzeak ekimena aberastu duela dio Telleriak. "Aurreko astean, esaterako, gaztetxeok gonbidatuta elkarrekin afaldu genuen. Erlazioak lotzen lagundu zuen ekintza horrek. Gainera, pixka bat elkar ezagututa, egunerokoan euskaraz jardutea lagun-garriagoa da kalean elkartzean".

Hamabi *auzokide* eta hamalau *auzotar* izan dira modu zuzenean



Gaztetxean egindako afarian *auzokideak* eta *auzotarrak* berbetan. | MAITE TELLERIA

eskoletan parte hartu dutenak. Baina, bestelako ekintzetan *auzotar* kopurua handitu egin da.

Erronka berriak 2015ean

Udalak Auzoko egitasmoarekin jarraitzeko asmoa dauka 2015ean. "Parte-hartzaileak mantendu eta berriak bilatu gura ditugu. Ez

da talde itxia eta ez dago astero etorri beharrik. Saiakerak egon diren arren, emakume *auzokide* gutxi hartu dute parte, eta emakume gehiagorengana jo nahi dugu. Eskolarekin harremana egin eta gurasoak aniztasunaren gainean sentsibilizatu; baita talde eragile berriak animatu ere".

Kirol aholkularitza eta kudeaketa zerbitzua luzatzea onartu du Udalak

Lorazainen zerbitzua emateko kontratu esleipena mahai gainean geratu da, urtarrileko osoko bilkurarako

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Martitzenean egin zen ezohiko osoko bilkuran izan ziren gaie-tatik, kirol aholkularitza eta kudeaketa zerbitzuak emateko kontratuaren luzapena izan zen gai esanguratsuena. Izan ere, Puri Regidor EAJko zinegotzia eta Ezker Anitza-IUko Juan Luis Merino kontra azaldu ziren.

Regidorrek aipatu zuen kirol aholkularitza eta kudeaketan eskaintzen den zerbitzuaren "kexu asko" daudela, eta zalantzak dituela aurkeztutako txostena "behar bezala eginda" dagoen. Eta gaineratu zuen kiroldegiko langileek egiten duten lana "nahikoa" dela.

Bestalde, Juan Luis Merino Ezker Anitza-IUko zinegotzia enpresa azpikontrata bat kontratatzearen aurka azaldu zen. Baina, legeak dioenez, Udalak ezin du enplegu publikorik sortu, eta ezinezkoa dela hori betetzea erantzun zion Herce alkateak.

Kirol batzordeburu Igor Ezpeletak, berriz, hauxe azaldu zuen: "Argitu beharra dago Rosa Lasagabasterren lanpostua ez dela kiroldegia kudeatzeko bakarrik. Alde batetik, kiroldegia kudeatzen du, baina herriko kirol ekin-tza ezberdinak ere bideratzen



Udalbatzako kideak martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran. | I.B.

ditu. Eskola kirola eta kirol elkar-teekin harremana, esaterako". Eztabaidaren ostean, onartu egin zuten kontratua luzatzea, Bilduko eta Elizateetako zinegotzien aldeko botoekin.

Lorezaintza, atzeratuta

Bestetik, Euskararen Plan Estrategikoa onartu zuten, 2015eko urtarriletik 2017ko abendura arte-

ko plana, hain zuzen. Udal administrazioak zein helburu dituen eta zein ekimen antolatuko dituen zehaztu dute hor, euskara lan-hizkuntza izan dadin.

Berdegunek, parkeak eta lorategiak zaindu eta mantentzeko zerbitzuaren esleipena, ostera, mahai gainean geratu zen; urtarrileko osoko bilkurarako utzi zuten gaia.

Axtroki elkarteak komertzioek euren produktuak aterako dituzte plazara gaur, Gabonetako azokan

Gaur, hilak 19, Axtroki merkatari elkarteak Gabonetako azoka egingo du herriko plazan, 18:30etik 20:00etara. Horretaz gainera, herriko tabernek eskaintza bereziak egingo dituzte, giroa alaitzeko animazioa egongo da eta harakinek pintxoak prestatuko dituzte, besteak beste. Bestetik, urtean zehar egiten den moduan, axtrokiak –Eskoriatzako moneta– euroen-gatik aldatzeko *bankua* egongo da; izan ere, oraingoan, eskaintza eskuzabala egongo da: 50 euroren truke 55 axtroki jasoko dira eta 20 euroren truke, berriz, 22 axtroki.

Gabonetako solidariotasuna arte martzialen erakustaldiarekin uztartuko dute bihar

Zailtasunak dituzten familiei laguntzeko asmoz, jostailuen eta elikagaien bilketa egingo dute bihar, 10:00etatik 14:00etara, pilotalekuan, Karate Atama Eskoriatza Elkar-teak antolatuta. Bada, giroa goxatzeko asmoz, arte martzialen erakustaldia egingo dute. Emanaldi horretan, aikido (Valentin Carrascal), capoeira (Igor Ezpeleta), defentsa pertsonal (Andoni Lopez), kick boxing (Jose Luis Arranz) eta *kenpo full defense* (Rafa Carriet) modalitateak landuko dituzte.

Pilatesa egiteko eta erlaxazioa lantzeko ikastaroa egongo da gaur Ibarraundi museoan, doan

Gaur, 17:30ean hasita, pilates eta erlaxazio tailer bat antolatu du Eskoriatzako Udalak. Ibarraundi museoan egingo dute ikastaro hori eta sarrera doakoa izango da; edozelan ere, Udaleko Kirol Zerbitzuko ekintzetan izena emanda daudenak da ikastaroa eta plazen kopurua mugatua da. Beraz, izena eman beharra dago aurretik: kiroldegira joan eta bertan eman beharko dute izena ikastaroa egin nahi dutenek.

OHARRAK

BANDAREN KONTZERTUA

Beheko Errota musika eskolak antolatuta, urtero legez, musika eskolako bandaren Gabonetako kontzertua emango du bihar, San Pedro parrokian, 20:00etan hasita.

ANTZERKIA

Ondoko hilobiko tipoa izeneko antzerkia egongo da, bihar, 22:30ean, Huheziko fakultatean Txalo produkzioak-en eskutik dator antzerkia; euskaraz eta doakoa izango da.

Edertasuna eta osasuna oparitu!

OPARI-TXARTELAK

**-% 10eko
DESKONTUA**

Eskaintza ballagarria 2015eko urtarrilaren 16ra arte

- Tratamendu berritzaile harmonizagarria BAOBAB olioarekin.
- Terapia holistikoa: gorputz-buru-ileko masajea (erlaxazioa zure buruarendako).
- Gorputz-esfoliazioa gatz-lorearekin (itsas gatz purua).
- Estresaren kontrako masajea olio esentzialekin.



R.P.S.: 225/14 Ez da osasun zentroa

GABON ZORIONTSUAK!
Eskerrik asko, beste urte batez, zure konfiantzagatik.



Olentzero iaz Sastiñan, ume aramaioarren gutunetako bat irakurtzen. Aurten ere hilaren 24an jaitsiko da, 18:00 aldera. | AIZPEA AJURIAGERRA

Urterokoek eta nobedadeek bat egingo dute Gabonetan

- Hilaren 26ko bertso saioan, Gaztelumendi, Mendiluze, Martin eta Igoa
- Gazte Asanbladak 10 urte bete dituela-eta aurkezpena eta "sorpresa"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Gabonak heltzeaz dira Aramaio-
ra ere, eta, urtero moduan, Uda-
lak adin guztiendako askotariko
ekintzak antolatu ditu herriko
hainbat kultura talde eta eragi-
lerekin batera. Gabonetako egi-
tarauaren barruko zenbait ekin-
tza egin dira dagoeneko, baina
aste bukaera honetan hasiko dira
ekintza aipagarrienak. Domekan,
mezaren ostean, Bizente Goikoe-
txea abesbatzak Gabonetako kon-
tzertua eskainiko du -hilaren
23an Arrasaten abestuko dute,
Musakolako Hiper Eroskin (18:00).

Olentzeroren ohiko etorrera

Abenduaren 24an etorriko da
ikazkin maitatuena; menditik
jaitsi eta frontoitik agertuko da
Olentzero, 18:00 aldera. Guraso
elkarteak antolatu du harrera

aurten ere; traktorean jaitsiko
da Bizente Goikoetxea plazarai-
no, trikiti doinuek eta eskolako
ikasleen argi-zuziek lagunduta.
Amaieran, Sastiñan, banan-banan
hartuko ditu haurrak. Guraso
elkartekoei 80 kilo gaztaina erre-
ko dituzte plazan bertan.

Bestalde, hilaren 26rako anto-
latu dute Bertso Eskolakoek Gabo-
netako bertso saioa. Beñat Gaz-
telumendi, Aitor Mendiluze, Alaia
Martin eta Xabi Igoa arituko dira
bertsotan, Sabin Aranburuk eta
Paula Amilburuk jarritako gaiei
erantzuten: "Udalaren eta Bertso
Eskolaren harreman ona baliatuz,
saio txukun bat antolatu dugu.
Guretako urteko ekitaldi garran-
tzitsuenetakoa da, herrian oihar-
tzun handiena izaten duena. Beraz,
mimoz antolatzen dugu. Herri-
arrentzako puntako bertsolariak

ikusteko aukeratzat dugu saioa",
adierazi dute antolatzaileek.

Gazte Asanbladaren erakusketa

Abenduaren 26an ere, hain justu,
beteko ditu hamar urte Gazte

Asanbladak. Urteurrena ospatze-
ko egitarau berezia antolatu dute:
Sastiñan ekitaldia egingo dute,
"sorpresa" eta guzti (19:00). Sas-
tiñan bertan hamar urteotako
argazkiak jarriko dituzte ikusgai.

GABONETAKO EGITARAUA

ABENDUAK 19-20

19:00 Argazki erakusketa
Sastiñan, Alex Mendikuteren
eskutik.

ABENDUAK 21

Mezaren ostean Bizente
Goikoetxea abesbatzaren
Gabonetako kontzertua, San
Martin elizan.

ABENDUAK 22

12:00 Umeendako sukaldaritza
tailerra erretiratuen lokalean.

17:00 Gabonetako karaokea
kiroldegian.

ABENDUAK 23

12:00 Umeendako sukaldaritza
tailerra erretiratuen lokalean.

17:00 eta 18:30 Panpin panpox
ipuin kontalaria; 2-6 urte
artekoak eta 7 urtetik gorakoak.

ABENDUAK 24

18:00 Olentzeroren etorrera.

ABENDUAK 26

12:00 Umeendako sukaldaritza
tailerra erretiratuen lokalean.
Izena eman behar da ludotekan
abenduaren 19a baino lehen.

17:00 Eriz magoa kultura
etxean: *Emozioen magia*.

19:00 Gazte Asanbladak 10 urte:
aurkezpen ekitaldia Sastiñan.

22:30 Gabonetako bertso saioa
kultura etxean.

ABENDUAK 30

09:15 Bilboko PINera. Itzulera,
18:00 aldera.

URTARRILAK 1

00:30 Topa, goiko tabernetan,
Gazte Asanbladak antolatuta.

Goizean Urteari ongietorria
emateko irteera Orixolera.

URTARRILAK 2

12:00-14:00 eta 16.30-19.30:
Umeendako jolasparkea
kiroldegian.

Biomasaren gaineko bilera, orain arte egon ez direnendako

J.B. | ARAMAIO

Biomasa proiektua herrira-
tzeko sentsibilizazio kanpai-
naren lehen fasea azaro amaie-
ran bukatu zen. Ibarako
herrigunea taldeka banatuta,
zazpi bilera informatibo egin
zituzten: "Parte-hartze maila
nahiko handia izan zuten",
diote Udaletik. Hala ere, orain
arte egindako bilerak lanegu-
netan egin direnez, biharko,
hilak 20, beste saio bat anto-
latu dute, aurreko bileretara
joan ezin izan direnei zuzen-
duta, bereziki. Bi deialdi egin
dituzte: lehena Ibarako ata-
rietako presidenteei zuzendu-
ta (11:00) eta bigarrena, herri-
tarrendako bilera irekia (11:30).

Sarea sartzeko baimenak

Zertarako deitu dituzten ata-
ri bakoitzeko presidentek
lehenengo? Haien baimena
beharrezkoa delako sarea sar-
tu ahal izateko. Horregatik,
atari bakoitzari baimena ema-
teko orriak banatu eta behar
dituzten azalpenak emango
dizkiete. Etxebizitza bakarra
dagoen eraikinetan ez da
beharrezkoa izango baimen
hori, atxikimendu orriarekin
nahikoa izango da-eta.

Udalaren arabera, "ezin-
bestekoa" da herritarren babe-
sa lortzea proiektuak aurrera
egin dezan: "Etxera sarea
sartzeko atxikimendu kopuru
minimo bat behar dugu. Horre-
gatik, parte hartzera animatu
gura ditugu herritarrak".

Federatu txartela eta Orixoleko bazkide egiteko aukera zabalik

Orixol mendizale elkarteak
2015erako federatu txartela
ateratzeko aukera dagoela
jakinarazi du. Tramiteak egi-
ten ari dira asteon, eta orain-
dik aukera egongo da lizentzia
ateratzeko. Elkarteak bazkide
egiteko deia ere egin dute
zuzendaritzako kide berriek;
interesatuak helbide elektro-
niko honetara idatzi behar
dute: orixolme@hotmail.com.

Aramaixo taldeak bihar jokatu du urteko azken partidua

Areto futboleko Aramaixo
taldeak Autoescuela Gasteiz
taldearen aurka jokatu du
bihar etxean, 19:00etan. Urte-
ko azken partidua izango da
aramaioarrendako, Gabone-
tako etenaldiaren aurretik.
Saikapenean postu bat behe-
rago dago talde gasteiztarra
eta beraz, lehia bizia espero
da biharko norgehiagokan.



Miren Amuriza eta Xabi Igoa 2013ko urtarrileko bertso saioan. | JOKIN BEREZIARTUA

Agintaldiko bigarren aurrekontu handiena

Zerbitzuak eta laguntzak mantenduz, 260.000 euro inbertsioetarako

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Datorren urterako 1.725.947,92 euroko aurrekontua onartu du udalbatzak. Aurtengoa baino 75.000 euro handiagoa da, eta gehikuntza horren zati handi bat —57.167 euro— inbertsioetara bideratuko dute. Udal Gobernu taldeak aurkeztutako proposamenak EAJko bi zinegotzien babesarekin jaso du. EH Bilduko hiru zinegotziak abstentitu egin dira.

Oxel Erostarbe alkateak azaldu du diru-sarreraren handiagoa aurreikusten dela Foru Fondotik, baita inbertsioak aurrera eramateko sarreretan ere. "Udal zerbitzuen maila mantendu egingo da, eta herria aurrera ateratzen diharduten elkarten eta norbanakoen ondoan jarraituko du Udalak", adierazi du.

Inbertsioetarako 259.750,11 euro izango ditu Udalak. Bideratuko dituzte, besteak beste, energia aurrezteko herriko argiteria berritzera, ibilbide tematikoa bultzatzera, baserri gunetan hobekuntzak egitera, eskolako eta haurreskolako beharretara, Bolatokiko ziburuetakoa lurra aldatzera eta kiroldegian mahai-tenis mahaia ipintzera. Kasu gehienetan, beharrezkoa izango da kanpoko erakundeekin inplika-

zioa. Eta Goiena taldearen kuota %1 igoko dute. "Aurrekontuan, zoritxarrez, bada diru-lerro bat Udalak dauzkan epaketari erantzuteko. Diru dezente jaso dugu horretan, gura dugulako 2015eko aurrekontuarekin zati handi bati erantzutea. Eta badago beste bat hauteskunde ostean udalbatza berriak udal kontuen auditoria egiteko aukera izan dezan".

Oposizioaren abstentzioa
Bildutik begi onez ikusi dituzte azken bi diru-lerrook, eta aurre-

kontu proposamena egoera ekonomikora egokitzen dela esan dute. Desadostasunak agertu dituzte, ordea, zenbait inbertsioekin —ikus behean—. "Momentu honetan ez ditugu hain beharrezko ikusten, eta uste dugu aurrez daitekeen diru kopurua erekin Udalari bizitzaren eta kolorearen eman ahal dien hainbat gauza egin daitezkeela", azaldu du Janire Lazkanok. Bilduk proposatu du diru horrekin hezitzaileen soldata 7. mailara igotzea eta udal teknikari bat kontratatzea.

"Aurrekontua aurrekontu, urtean zehar eta batzordez batzorde partida bakoitzaren gainean hartu diren erabakiak eztabaidatzen izan gara gure iritzia eta aldarrikapenak gauzatzeko lanean".

Agintaldiko azken aurrekontua onartu ostean, pozik agertu da Erostarbe. "EAJk eta Bilduk adostasun zabala dute aurrekontuarekin", esan du. "Bildu ados dago %98,9rekin. Metrailadorea, ziburuetakoa lurra eta mahai-tenis mahaia aipatu dituzte bozketan abstentitzeko".

INBERTSIOAK

Herriko argiteria	95.000
Ibilbide tematikoa	33.500
Baserri gunek	32.200
Ziburuetakoa lurra	25.000
Eskolako inbertsioak	20.000
Asentzioko lur saila	7.500
Komertzio txikiak	7.000
Ortu komunitarioak	6.000
D. Iturbe lur saila	6.000
Lagun Artea errota	5.000
J. Gaztesi artxiboa	3.500
Irisgarritasun lanak	3.000
Haurreskola	3.000
Mahai-tenis mahaia	3.000
Biltegiko atea	2.615,75
Konpost-gunek	1.500
Brigadako tresneria	1.500
Fotokopiagailua	1.134,36
Kultura etxeko lanak	1.000
Kaleko altzariak	1.000
Kiroldegiko ispilua	700
Udako ur putzuak	600

JANIRE LAZKANO | EH-BILDU, ELGETA

"Hainbat desadostasun dauzkagu"

"Aurrekontua bizi dugun egoera ekonomikora nahiko egokituta dago. Begi onez hartu ditugu bai auditoria egiteko erabakia bai Udalak dauzkan sententzietarako 149.000 euroko diru-lerroa bideratzea. Baina beste erabilera bat egingo genuke zenbait inbertsioetara bideratutako diruarekin, une honetan premiazkoetat jotzen

ez ditugulako: metrailadorea (4.000 euro), jolasparkeko lurra (8.000 euro), mahai-tenis mahaia (3.000 euro). Udal webgunearen mantenua ere merkeago egin daitekeela uste dugu... Diru hori udako hezitzaileen soldata 7. mailara igotzera bideratuko genuke, eta kultura, turismo, gazteria... gaietarako udal teknikari bat kontratatzea".

PATXI BASAURI | EAJ, ELGETA

"Ados gaude aurreikusitakoarekin"

"Orokorrean, balorazio positiboa egiten dugu, eta konforme gaude aurreikusitakoarekin. Bi batzorde ditugu eta baserriaren jasota daude baserri batera ura eramateko proiektua eta beste batera bide berria egiteko proiektua. Beste lau edo bost baserriarako bideak mantentzeko diru-lerroak ere

jasota daude. Mantentze-lan hori Udalaren ardura da. Turismo batzordean, berriz, jasota dago ibilbide tematikoa bultzatzen jarraitzeko diru-lerroa, baita Lagun Artea errota konpontzeko dirua ere. Ea datorren urtean martxan jartzen dugun, kanpotik etortzen den jendeak bisitatzeko aukera izan dezan".



ELGETA ZERO ZABOR

Berrerabilpenean maisuak

"Hondakinen bilketa sisteman aldaketak ezarri direla-eta nagusien eguneko egoitzara hurbildu gara beraien oroitzapenak, bizipenak eta iritzia jasotzeko. Garbi dute hondakinik onena sortzen ez dena dela".

KOMUNITATEA GOIENA
ELGETA ZERO ZABOR

Musika ikasleen saioa gaur eta jostailuen azoka domekan

Musika irakasle Lorea Larrañagak antolatuta, musika ikasleek Gabonetako emanaldia egingo dute Espaloian gaur, hilak 19, 19:00etan. Domekan, berriz, jostailuen truke azoka izango dute neska-mutikoek plazan, 12:00etan. Eskolara eramandako jostailu bakoitzeko jasotako txartelak trukatu ahal izango dituzte azoka horretan.

Gaur, 19:00etan, pilota txapelketako finalerdiak frontoian

Hiru norgehiagoka iragarri dituzte gaurko, barikua, pilota txapelketaren barruan. Angel Ibarluzea-Alberto Telleria eta Gorka Bolinaga-Iñaki Ugarteburu; Koldo Goenaga-Fernando Zenitagoia eta Jabier Bolinaga-Jose Mari Zubiaurre; Ibon Untzetabarrerenetxea-Mikel Beretxinaga eta Diego Cantabrana-Iban Retolatza.

Zuhaitzak kimatzen ikasteko lau orduko saioa hilaren 27an

Baserriaren kooperatibak antolatuta, zuhaitzak kimatzearen gaineko ikastaro praktikoa egingo du Xabier Akizu adituak Elgetan. Hilaren 27an, zapatua, izango da, 09:00etatik 13:00etara, eta doan da. Ezinbestekoa da izena ematea. Interesatuak udaletxera edo 685 76 99 83 telefono zenbakira deitu behar dute. Herrikoek lehentasuna izango dute.

LEINTZ GATZAGA

Labidearen adjudikazioa lehiaketara aterako dute

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA
Atzo, eguna, egin zuen udalbatzak 2014ko azkeneko osoko bilkura, bi punturekin: harrera protokoloa eta Labidea zerbitzuaren adjudikazioa. Biak onartu egin zituen udalbatzak, aho batez. Alde batetik, Aldundiak mar txan jarriko duen harrera proto-

koloa onartu zuen Udalak: Mankomunitateak kudeatuko duen hitzarmen horrek etorkinei begira bi lanpostu sortuko ditu sei hilabeterako.

Lau urterako kontratua
Eta, bestetik, Labidea zerbitzuaren kontratua luzatzeko plegu

administratiboak onartu zituzten atzoko osoko bilkuran. Oraingoan, urtebete barik, lau urterako adjudikatuko dute. Edozelan ere, ez zaio azken urtean esleitu diotenari zuzenean emango: izan ere, legeak hala aginduta, gutxienez hiru enpresa edo pertsonari Labidea zerbitzua bere gain hartzeko gonbidapena egingo zaie, eta gero, udalbatzak lehiaketara aurkeztutako proiektu horien artean aukeraketa egin beharko du, behin-behineko esleipena egiteko, hain zuzen ere.



2014ko azkeneko osoko bilkura. | A.L.

ESKALADA

Gabonetako topaketa gaur Ibarra kiroldegian

X.U. | ARETXABALETA

Gaur, abenduak 19, eskalada topaketa egingo dute Aretxabaletako Ibarra kiroldegian, 17:30ean hasita. Topaketa hori Debagoiena Eskalada Eskolako kideendako da, eta baita Ibarra kiroldegiko roko-dromoko erabiltzaileendako ere. Izen-emateak 17:00etan egingo dituzte, eta jarraian hasiko dute topaketa –guztira, bi ordu eta erdi inguru iraungo du.

Ibarrekoak, txapeldun

Debagoieneko eskalada harrobiak poztasunak ematen jarraitzen du. Duela hilabete –azaroaren 8an– Ander Mendietak irabazi zuen Euskal Herriko boulder txapelketa, eta oraingo asteburuan egin duten gazte mailako txapelketan ere protagonista izan dira debagoiendarrak.

Hala, Berrioibeitin egin dako txapelketan –20, 18 eta 16 urtez azpikoetan– Mikel Linazisoro bergararrak irabazi zuen bere kategorian (16 urtez azpikoak), eta emakumezkoetan Mirian Mulas arrasatearra nagusitu zen.

ATLETISMOA

Eskoriatzako San Silvestreko aurkezpena, aste barruan. | GOIENA

Urtea antxintxika amaitzeko hiru proposamen ibarrean

Eskoriatzan, Bergaran eta Oñatin egingo dituzte San Silvestre lasterketak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Urtea kirola eginez amaitzeko aukera egongo da aurturten ere. Orain arte, Oñatin eta Eskoriatzan egin izan dituzte San Silvestre lasterketak; bada, horiei bes-

te bat gehituko zaie: Bergarako Peugeot Etormobil saria.

Eskoriatzakoa, zazpigarrena

Eskoriatzan VII. Silbestradie egingo dute, 17:30ean. Goiz par-

tean, herriko txikienei zuzendutako lasterketak egingo dituzte. Haurrek aukera izango dute dortsalak kolorez margotzeko, gainera. 10 urtetik beherakoek lasterketa 12:30ean hasiko da, eta

ondoren txistor-jana izango dute, indarrak berreskuratzeko.

Arratsalde partean nagusien txanda izango da. 17:25ean brindisa egingo dute eta ondoren lasterketa. Herriko plazan hasiko dute ibilbidea; aurtur berri-tuta dator. Ibilbidearen azken milian, IV. Manuel Muñoz saria izango da, aurreko urteetan bezala, eta norgehiagoka bizia izango da. 18:00etan luntxa izango dute.

Oñatin zazpi kilometro

Dagoeneko ohitura bilakatu da oñatiarren artean San Silvestre lasterketa. Abenduaren 31n, 16:00etan, gaztetxoek lasterketak egingo dituzte; eta 16:30ean, nagusiak. Udaletxeko arkupeetan eman beharko da izena 3 euroren truke, 16:00ak baino lehen. Urtero moduan, txokolatea banatuko dute parte-hartzaileen artean.

Zazpi kilometroko ibilbidea izango da, herriko kaleetan. "Zazpi kilometro gozatzeko, lagun artean egiteko, urteari agur esateko", diote antolatzaileek.

Bergarakoa, mendikoa

Aurtengoa lehenengoa izango da Bergaran. Mendi lasterketa izango da, Peugeot Etormobil Sari Nagusia. Sei kilometro eta 500 metroko ibilbidea izango dute eta Seminarioan hasiko da, 11:00etan. 200 lagunendako zabaldu dute izen-ematea. Herrigunean hasiko dute, eta Itsasmentitik Murinondoratz egingo dute korrika ondoren. Seminarioan amaituko da lasterketa.



Atzo, eguna, aurkeztu zuten torneo Aretxabaletan. | GOIENA

FUTBOLA

Gabonetako Emakumezkoen Torneo urtarrilera pasatu dute

XABIER URZELAI | ARETXABALETA

Hamar urte beteta, eta hasierako helburuei tinko eusten, halaxe dator aurtengo Emakumezkoen Gabonetako Futbol Torneo. Arizmendikoen eskutik opor egunetan emakumezkoek ere futboleko jokatzeko aukera eskaintzeko asmoz sortu zuten txapelketa, eta horretan jarraitzen dute.

Hala, antolatzaileek adin guztiak hartu dituzte kontuan oraingoan ere. Senior mailakoek partidua izango da izarra, Reala, Athletic eta Debagoieneko Selekzioa aurrez aurre jarriko dituen, baina kategoria txikiagoek ere izango dute izerdia botatzeko aukera.

Egun aldaketa

Hala, aurtengo nobedadea egun aldaketa izango da; orain arte abenduak azken egunetan jokatzen zuten torneo, eta oraingoan, urtarrilaren 3an eta 4an jokatuko dituzte partiduak.

Hala, urtarrilaren 3an –zapatua– alebin, infantil eta kadete mailako partiduak jokatuko dituzte; bailarako taldeetako ordezkariek egoteaz batera, Euskal Herriko beste talde batzuetako jokalariek ere etorriko dira; guztira, bederatzi klub egongo dira ordezkatuta. Eta talde nagusien hiruko torneo domekan jokatuko dute, hilak 4, (09:30). Sari banaketa 14:30 aldera egingo dute.

HITZALDIA

Unda eta Txikon, kirolaz eta euskaraz

AEDko Bultza taldeak antolatutako berbaldia egin zuten Alex Txikonek eta Maider Undak Arrasaten. Txikon K2ra abiatuko da laster, zortzimilako hori neguan igotzeko asmoz, eta Unda aurki dituen txapelketak prestatzen dabil. Euren egunerokoaz egin zuten berba, eta kirolean euskarak dituen erronken gainean.



MIREN ARREGI

FUTBOLA

Aretxabaletaren eta Bergararen arteko derbia domekan

Ligako hamabosgarren jardunaldiak Aretxabaletaren eta Bergararen arteko derbia ekarriko du. Valleren mutilek lider jarraitzen dute, Elgoibarren zelaian ederto zuzendu zuten-eta duela hamabost egun etxean galdutako partidua. Bergara, oster, Aloñaren kontrako derbian berdintzetik dator (1-1).

SARI BANAKETA

Kirol Sariak banatuko dituzte Oñatiko osoko bilkuren aretoan 19:00etan

Oñatiko Kirol Sariak banatuko dituzte gaur udaletxean, 19:00etan hasita. Herriko kirolarien lana eta esfortzua saritzea da sarion helburua. Banatuko dituzten sarien artean dago Herriarren Saria. Herriarrek bozka bidez aukeratutakoa izango da, ondoko hiru kirolari hauen artean: Jokin Garai, Ariadna Burgos eta Mikel Ugarte, hain zuzen ere.

PILOTA

Abenduaren 22an pilota jaialdia, santamaseen barruan

Datorren martitzenean, 17:30ean, pilota jaialdia egingo dute Uarkapen. Lehenengo, palan, emakumezkoen mailako munduko txapeldunek erakustaldia egingo dute, eta ondoren, eskupilotan, profesionalak izango dira: Mendizabal eta Pascual, Lasaren eta Tolosaren kontra. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da da –gazteak doan.

ZIKLO-KROSA

Zirkuitu berria estreinatuko dute Oñatin

Ziklo-kros probak domekan jokatuko dituzte, Urrutxun, 10:00etan hasita

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Ohiko bilakatu da Gabon inguruan Oñatin egiten den ziklo-kros proba; baina aurtén, berritasunekin dator. San Martin inguruan izan beharrean, Urrutxun jokatuko da aurtén V. ziklo-krosa.

Antolatzaileek 2.500 metro inguruko ibilbidea prestatu dute Urrutxu, San Bartolome eta Goribar Goitiko zelaietan.

Lau maila egongo dira

Lasterketak 10:00etan hasiko dira. Lehenengo saio horretan, kadete mailako txirrindulariek parte hartuko dute, bai neskek eta bai-ta mutilek ere.

11:00etan, gazte mailakoen txanda izango da. Alde batetik, gazte mailako neskak eta mutilak lehiatuko dira; baina, horiez gain, elite mailako neskak ere multzo

horretan irtengo dira. 12:00etan, master 30, 40, 50 eta 60 mailakoen txanda izango da. Azkenik, 13:00etan, eliteen eta 23 urtez azpiko mutilen txanda izango da.

Aloña Mendiko txirrindularitza saila ibili da antolatzaile lanetan. Horren harira, lehiaketan parte hartuko duten oñatiarren zerrenda egin dute: kadete mailan, Ander Gartzia; gazteetan,

Julen Umerez, Xabier Aiastui, Ekaitz Txintxurreta, Xabier Murgiondo, Andoni Gartzia eta Beñat Ormaetxea; eta master 50 taldean, Andoni Gartzia.

Nahiko ibilbide laua izango da

Prestatu duten ibilbidea nahiko laua izango da. Hala ere, antolatzaileek esan dute euria eginez gero nahiko gogorra izan daitekeela ibilbidea. Zirkuituaren punturik gogorrena Goribar Goitiko aldean dago: han, ziurrenik, bizikletan bizkar gainean dutela joango dira txirrindulariak.



Ziklo-krosa Oñatin. | GOIENA

HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA
Tolosa-Antzuola
Zapatua. 16:30. Berazubi.
Aurrera-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zaldupe.
Aretxabaleta-Bergara
Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Anaïtasuna-Mondra
Domeka. 11:30. San Juan.
Aretxabaleta B-Soraluze
Zapatua. 16:00. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA
Bergara-Urki
Zapatua. 16:45. Ipintza.
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 17:45. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA
Eskoriatza-Mallabia
Domeka. 11:00. Manuel Muñoz Kiroldegia.

GIPUZKOAKO LIGA
Barrantol-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Eskolapiok.

BIGARREN MAILA
Egintza-Mondrate
Ostirala. 20:30. Olaederra.

ESKUBALOI

LEHEN NAZIONAL MAILA
Ford Mugarrri Arrasate-Hondarribia
Zapatua. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEZKOAK
Bergara-Ordizia
Zapatua. 18:30. Labegaraleta.

EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKOAK
Urnieta Larrialdiak Fundazioa-Aloña
Zapatua. Urnieta Udal Kiroldegia.

SASKIBALOI

EBA MAILA
Take Tolosa-MU
Zapatua. 18:30. Usabal.

SENIOR GIZONEZKO 2.MAILA
Soraluze Begara-Cafes Aitona
Zapatua. 16:30. Labegaraleta.
Oñartzungo Saskilagunak-MU
Zapatua. 16:30. Elorsoro.

EMAKUMEZKO SENIORRAK
Eskoriatza-Summa Aldapeta
Ostirala. 20:15. Manuel Muñoz.

GAZTEAK, ERRENDIMENDUA
Kiko Enea-MU
Zapatua. 12:30. Majori.

ESKU PILOTA

FEDERATUAK
Oñalde-Gazteleku
Ostirala. 20:00. Antzuola.
Arrasate-Eibar
Zapatua. 17:30. Uarkape (Arrasate).

ZIKLO-KROSA

OÑATIKO SARIA
Domekan, Urrutxun:
10:00etan kadeteak
11:00etan gazteak
12:00etan masterrak
13:00 Elitekoak

LANGILE ETA LANGABETUENTZAT IKASTAROAK
%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

	IKASTAROAK	ORDUAK	DATAK
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
FMEH0109 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA			
MF0089_2	UF0991: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO KOSTUAK KALKULATZEA	40	2015/01/12 - 2015/02/03
MF0091_2	UF0883: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA.	30	2015/03/02 - 2015/03/24
	UF0877: LANEKO ETA INGURUMENEO ARRISKUEN PREBENTZIOA	30	2015/02/09 - 2015/02/26
MF0090_2	UF0880: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOKO FABRIKAZIO-PROZESU OSAGARRIAK. HIDRAULIKA	70	2015/04/13 - 2015/05/21
	UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA. FRESA HEIDENHAIN	80	2015/01/08 - 2015/02/26
FMEE0308 FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUEN DISEINUA			
MF0107_3	UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID WORKS	40	2015/02/02 - 2015/02/26
	UF0454: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ	90	2015/03/02 - 2015/05/07
	UF0455: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUAREN DOKUMENTU-KUDEAKETA	30	2015/05/11 - 2015/06/01
FMEE0208 EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINERIAREN MUNTAKETA ETA ABIARAZTEA			
MF1263_2	UF0457: SISTEMA MEKANIKOAK ABIARAZTEA ETA ERREGULATZEA	50	2015/02/12 - 2015/03/17
KATALOGOZ KANPO			
	EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONAL. MCOSMOS	30	2015/04/20 - 2015/05/07
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEE0109 BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA			
MF0821_2	UF0888: LOKALETAKO, SALTOKIETAKO ETA INDUSTRIA TXIKIETAKO INSTALAZIOETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, BTEEAREN ARABERA	50	2015/02/09 - 2015/03/10
ELEM0311_2 AUTOMATIZAZIO-SITEMA INDUSTRIALEN MUNTAKETA ETA ZAINKETA			
MF1978_2	UF2235: AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMAK ABIAN JARTZEA	90	2015/01/26 - 2015/03/24
	UF2236: LANEKO ETA INGURUMENEO ARRISKUAK PREBENITZEA AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMEN MUNTAIAN ETA MANTENTZEAN	30	2015/04/13 - 2015/04/28
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
ADGD0208 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA			
MF0237_3	UF0342:GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOAK KALKULATZEA	30	2015/03/02 - 2015/03/24
MF0238_3	UF0345: GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETARAKO LAGUNTZA ADMINISTRATIBOA	60	2015/04/20 - 2015/05/21

**EUSKO JAURLARITZA**
EMPLEGU ETA GIZARTE
GAITARAKO SAILA

**GOBIERNO VASCO**
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTO SOCIALES

**HOBETUZ**
Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa

INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: Miguel Altuna Institutua - Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara.
Tel: 943 76 70 49 // Mug: 688 81 50 70 // Email : ikastaroak@imaltuna.com



Ilusioa eta poza da Eguberrietan lema beheko suaren berotasuna eta familiarena urte zaharra borobiltzeko Olentzerori ordena berak nahi luke baina batzutan ezin du ekarri dena urte berriak ekar dezala hark ekarri ez duena

Gorka Lazkano Arrizubieta



Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!



KULTURA



Altxorraren uhartea musikaleko protagonistak, astean, entsegu gelan. | MIREN ARREGI

Hamargarrenean, altxorraren bila

- 'Altxorraren uhartea' musikala taularatuko du Ganbara Txiki Abesbatzak urtarrilaren 17an
- 52 lagunekoa taldea ari da dena antolatzen; horietatik 36 dira Ganbara Txikiko neska-mutikoak

MIREN ARREGI | OÑATI

Musikalak dira, zalantza barik, Ganbara Txiki Abesbatzaren zigiluetako bat. Hamar urteko ibilbidean hainbat eta hainbat izan dira eszenaratu dituzten era horretako lanak, eta, hamargarren hori borobiltzeko, *Altxorraren uhartea* musikalorekin dator taldea. Urtarrilaren 17an egingo du, Oñatiko Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan. Bi saio egingo dituzte: 17:30ean lehena eta 20:00etan bigarrena.

Hamargarren urteurrena borobiltzeko ekintza izango da hori: *Hamar* diskoaren grabaketa, *Denboraren makina* jaialdia eta *Kantua kalean*: zirkoa egitasmoen ondoren datorrena.

Stevensonen nobelan oinarritua

Altxorraren uhartea musikalorekin XVIII. mendera bidaiatuko du ikusleak. Benta zaharrak, sekretuak gordetzen dituen marina, piratak, gaizkileak, altxorra... Bidaia zirraragarria proposatzen du 1883an Robert Louis Steven-

sonek argitaratu zuen *La Isla de Tesoro* nobelan oinarritutako musikalak.

Ordu eta erdiko saioa izango da; bi zatitan banatuko dena. Lehenengoan, istorioko protagonistek altxorraren mapa eskuratuko dute. Bigarrenean, berriz, altxorraren bila abiatuko dira *Hispaniola* itsasontzian Smollet kapitainaren gidaritzapean. Las-ter konturatuko dira, baina, *Hispaniola*-ko tripulazioa gaizkilez eta traidorez beteta dagoela... Protagonistek altxorra aurkituko duten ala ez? Hori ikuskizunean bertan argituko da.

Moldaketak

Duela urtebete inguru hasi ziren proiektua prestatzen, gisa horretako musikal batek lan handia baitu atzetik. Aukeraketa bera ere ez zen erraza izan: "Ez da erraza umeendako horrelako musikal bat aurkitzea. Gaiari dagokionez, erakargarria, musika politarekin... Oinarria da Stevensonen nobela, baina beste

Piraten Txanda, bihar, 11:30ean, herriko plazan

Ez da, baina, urtarrilaren 17ra arte itxaron beharko *Altxorraren uhartea*-ren nondik norakoak ezagutzeko. Hain zuzen ere, bihar, zapatua, musikalaren aurrerapen bat egingo du Ganbara Txikik herriko plazan.

Ez hori bakarrik, Txanda elkartearekin batera, Piraten Txanda jolasa ere egingo baita bihar, 11:30ean hasita. Dagoeneko 200 ume eman dute izena. Hainbat proba gainditu ondoren altxorra azkarren aurkitzen duena izango da irabazlea; musikalerako sarrerak eta beste irabaziko ditu.



Irene Urzelai, Teo Maiztegi eta Naroa Zumalde, protagonistak. | M.A.

musikal batzuekin ere uztartu dugu eta abesti batzuk moldatu ere egin ditugu", dio Biainek.

Bereizten dena

Altxorraren uhartea-k baditu ezau- garri bereziak Ganbara Txikik orain arte egin dituen musikalekin alderatuta. Hasteko, iraupena. Izan ere, orain artekoak ez bezala, ordu eta erdiko musikal izango da, eta hori ez da erronka makala abestu, dantzatu eta aktore lanak egin behar dituzten gatzetxoendako: "Iraupenarena erronka handia da guretzat; orain arteko luzeenak 45 minutu inguru izango zuen", dio Ganbara Txikiko zuzendari Aitor Biainek.

Bigarren aldaketa da agertokia. Ganbara Txikik Santa Ana antzokian taularatu izan ditu orain artean aurkeztu dituen musikal guztiak, baina *Altxorraren uhartea*-rako txiki gelditu zaie: "Oso espazio mugatua lan egin izan dugu orain arte, eta, *Altxorraren uhartea*-n, espazioa irabaziko dugu. Dekoratuak,

argiztapena... Dena askoz ere ikusgarriago egingo dugu", dio zuzendari Aitor Biainek.

Attrezzoa, gurasoen lana

Ikusgarria izango da, antolatzaileen esanetan, emanaldia. Eta osagai asko ditu horrela izan dadin; izan ere, dekoratuak, jantziak, makillajea, dena zehatz eta zorrotz zaindu dute.

Hala, musikalean zehar hainbat agertoki ikusiko ditu ikusleak; XVIII. mendeko benta zaharra, *Hispaniola* itsasontzia, uhartea, altxorra... Ez hori bakarrik, protagonistek erabiliko dituzten jantziak ere oso zainduak eta zorrotz aukeratuak izan baitira. Orrazke- ra eta makillajea ere modu berean zainduko dira, eta, hala, XVIII. mendeko piraten mundura eramango dute ikuslea. Hain zuzen ere, Ganbara Txiki osatzen duten neska-mutikoen gurasoek egin dituzte lanok.

Sarrerak salgai daude 10 eurotan Txokolateixan eta *Ganbara.org* webgunean.

Aretxabaleta eta Eskoriatza, aurrez aurre laugarren toberan

Abenduaren 28an Aretxabaletako Ibarra kiroldegian izango da (19:00)

A. ARANBURUZABALA | ARETXABALETA
Aretxabaletako Ibarra kiroldegian egingo dute Bagarak bultzatutako laugarren tobera, abenduaren 28an (19:00). Herri moduan gutxietsi izana leporatuta, Eskoriatza izango da akusazioaren protagonista nagusia, Debagoieneko beste herri batzuetako ordezkarien laguntza izango duen arren.

Atzo izan zen ezohiko osokoa
Aurrekoetan moduan, akusatutako herrian ezohiko osoko bilkura egin dute, tobera epaiketara joateko *enbidia* onartzen duten edo ez erabakitzeke. Horrela egin zuten atzo, eguna, Aretxabaletako udaletxean. Bilkura azkarra izan zen. Ohi moduan, pregoilariak zabaldu zuen ekitaldia; jarraera bihurri samarrarekin aurkeztu zuen herria defendatuko duen abokatua: Justa Zelaia. Bere burua eskaini zuen Zelaia Eskoriatza koen desafioari aurre egiteko, Aretxabaletako askotariko eragileek osatutako udalbatzarrean. Duda txiki batzuk izan ziren arren, aho batez onartu zuten Zelaia egin zien proposamena.

Sarrerak zortzi eurotan salgai
Astelhehena ezkerro daude toberarako sarrerak eskuragarri, zortzi eurotan. Aurreko edizioetan moduan, honako herri eta salmenta puntu hauetan eros daitezke: Aretxabaletan, Arkupe kultura etxean eta Bagararen bulegoan; Eskoriatzan, Manuel Muñoz kiroldegian; Arrasaten, Ttukun dendan; Bergaran, Pol-pol tabernan; eta Oñatin, Txokolaterixan. Leku horietan, gainera, *on line* ere eros daitezke, helbide honetan: *Bibe.me*.



Justa Zelaia (Miren Arenatza) abokatua eta Egoitz Salaberria (Aitor Agiriano) fiskala. | KEPA ERRASTI

JUSTA ZELAIA ETA EGOITZ SALABERRIA | TOBERAKO ABOKATUA ETA TOBERAKO FISKALA

Justa Zelaia: "Aretxabaletarrak handikiak garela? Bai, zera!"

Epaiketarako bi aste eskas faltan, buru-belarri ari dira aurtengo toberarako argudioak prestatzen Justa Zelaia (Miren Arenatza) Aretxabaletako abokatua eta Eskoriatzako fiskala (Aitor Agiriano).

Ze asmorekin zoazte tobera epaiketara?

Egoitz Salaberria: Aretxabaletakoei eskarmentu apur bat emateko asmoz noa. Lau puntu zehatzetan oinarrituko naiz salaketak arrazoitzeke. Dagoeneko badituzte Eskoriatzaren alde egingo duten lekukoak. Ez dut arazorik izan horiek topatzeko, bistakoa da-eta leporatutakoak arrazoizko argumentuak direla.

Justa Zelaia: Lasai asko noa Toberara; Eskoriatzar horiek zer esaten duten entzuteko gogoia dut. Beti eduki izan dute konplexua, bai; eta nik uste dut terapia moduan erabili gure dutela epaiketa. Ez dute fundamentuzko arrazoirik ezer leporatzeko. Batere beldurrik ez, bada!

Zein da, zehazki, akusazioa eta zeintzuk defentsarako dituzuen argumentuak?

E.S.: Historikoki nagusikeriaz jokatzeara leporatuko diot Aretxabaletari eta Eskoriatzakoei aurrean gutxiespeneko

jarrera izatea. Sekulakoa izan da mende mende eskoriatzarrek jasan behar izan dugun mespretxua euren aldetik. Jarrera horri instituzionalki erantzun bat ematea da orain asmoa. Ea, behingoz, errespetua zer den ikasten duten. J.Z: Handikeriatan ibiltzen garela eta txarto tratatzen ditugula leporatzen digute; baina ez dut zergatia ulertzen. Ekarri dituzten arrazoiak ez dira batere pisuzkoak, gainera; *egixe berdaderuek* baino ez. Barregarri geratuko dira.

Zelako lekuko edo pertsonaiak eramango dituzue?

Egoitz Salaberria: Orokorrean berba eginda, salaketa puntu bakoitzeko lekuko bana eramango dut. Denetik daude, askotariko pertsonaiak aurkitu ditut inor konbentzitzeko ahalegin handirik egin barik. Pertsonaia historikoak daude, baina baita gaur egun hedabideetan azaltzen den debagoiendar ezagun bat ere... eta beste hainbat!

Justa Zelaia: Primerako lekukoak ditut nik ere. Pista batzuk ematearren, esango dizuet herrikoak, aretxabaletarrak, direla gehienak. Garai bateko alkate bat ere gonbidatu dut, eta han izango da. Eskoriatzarren lekukoekin alderatuz.... duda barik, behar diren modukoak dira gureak!



Marlena Smalls. | ARRASATEKO UDALA

AEBetako gospel doinuak Amaia antzokian martitzenean

A. A | ARRASATE

Santamasetako biharamunean, abenduaren 23an, gospel doinuak entzuteko aukera izango da aurten ere Arrasaten. AEBetako musikariak igoko dira Amaia antzokiko oholtzara, 20:00etan: Marlena Smalls & The Hallelujah Gospel Chorale dira aurtengo protagonistak.

Adituen esanetan, artista moldaerraza, dinamikoa eta inspiratuenetakoa da Marlena Smalls. Bereziki gospel eta gullah estiloetako kantaria bada ere, bestelako estiloetako abestiak ere batzen ditu kantu-zerrendan, musika garaikideari, jazzari eta bluesari ere lekua eginda. Aktore lanetan ere jardun izan du Smallsek, besteak beste, *Forrest Gump* film ezagunean.

Sarrerak, 20 eurotan

Orain dela hilabete batzuk saltzen hasi baziren ere, oraindik ere badago martitzeneko emanaldirako sarrerak eros-teko aukera. Amaia antzokiko leihatilan eskura daitezke, 20 eurotan; eta *on line* ere bai, *Arrasate.eus* atarian.

Aitor Luna aktore bergarra Alatraste kapitain bilakatuko da laster

A. A. | BERGARA

Arturo Perez Reverte idazlearen pertsonaia ezagunenetakoa da Diego Alatraste (Alatraste kapitaina); bada, Gabonen ostein, Telecinco katean erakutsiko duten telesail berrian, literaturako pertsonaia horren azalean sartuko da Aitor Luna aktore bergarra. Militar abenturazalea izango da, bada, Luna; amodiozko eta bestelako hamaika istoriotan murgilduko da, haren zaintza duen Iñigo de Balboa ikaslearekin.


Publiko guztientzako telesaila izango da, eta, beste batzuen artean, hauek izan ditu Lunak lankide: Lucia Jimenez, Natasha Yarovenk eta Markos Ruiz.

Mimoz eta diruarekin eginda

Budapest 27 astean filmatu dituzte kapitulu guztiak; Hungariako Korda estudioetan. Istorioa, baina, XVII. mendeko Madrilen dago kokatuta. Mimoz eta aurrekontu handiarekin egindako lana da; horren erakusle, telebilean izan diren 2.500 figuranteak eta 6.000 metro karratuko platoa.

Perez Reverteren gustukoa

Alatraste kapitainaren papela aukeratzeko proba asko egin zituzten. Aukeraketa horretan azkeneko hitza, baina, istorioaren asmatzaileak zuen, Arturo Perez Revertek berak, horixe zen-eta hasieratik jarri zuen baldintza.



Aitor Luna bergarra. | VERTELE.COM

Arduradunek bergarra aukeratu zutenean harekin bazkaltzeko hitzordua egin zuen Revertek. Bazkalostean, bete-betea asmatu zuela erantzun zien idazleak, Lunarekin txundituta.

Hilabete eskas, amodiozko gutunekin lehiatzeko

A. A. | BERGARA

Urtarrilaren 7an bukatuko da Jardun elkartearen amodiozko gutunen 23. lehiaketa parte hartzeko epea. Urtero moduan, tantaka-tantaka jasotzen ari direla diote Jardunetik: "Oraingoz, bederatzi jaso ditugu: bost Gipuzkoatik, Bizkaitik bi eta Arabatik bat. Bitxikeria moduan esan behar da Sevillatik ere jaso dugula aurten bat. Kontua da, baina, ingelesez idatzitako eskutitza dela; beraz, lehiaketatik kanpo geratu da, derrigorrean euskaraz idatzitakoak behar dute-eta izan".

Sariak, otsailaren 13an

Lehiaketan 2000. urtean edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte. Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatzitakoak izan behar dute; eta, nola ez, gutun forma izan beharko dute, ordenagailuz edo eskuz idatzita aurkeztu daitezke. Informazioa gehiago, *Jardun.org* atarian.

500 eta 150 euro bitarteko lau sari izango dira aurten ere; horien artean dago herriko lan onenaren saria. Otsailaren 13an izango da sari banaketa, Bergarako kultura etxean.

Egaña, Artzallus, Lujanbio eta Agirre astelehenean Amaia antzokian

Belaunaldi askotariko bertsolariak Arrasateko eta Oñatiko emanaldietan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Andoni Egaña, Amets Artzallus, Maialen Lujanbio eta Amaia Agirre izango dira santamas eguneko bertso saioan Amaia antzokian, 20:30ean. Manex Agirrek jardungo du gai-jartzaile.

Sarrerak hamar eurotan esku-
ra daitezke (AEDko bazkideek
eta Goiena Klubeko kideek zortzi
eurotan), AED elkartearen bule-
goan, Irati eta Monte tabernetan.
Astelehenean antzokiko leihatil-
an ere salduko dituzte, 19:30ean.

Herritarrek ere, gai jartzaile

Taularen gainean izango bada
ere, ez zaio bertsoan egitea ego-
kituko oraingoan Manex Agirre-
ri; herritarren proposamenekin
osatutako gai-zerrendatik tiraka
kantuan jarriko ditu ondo eza-
gutzen dituen bertsolari-lagunak.
"Lujanbiok, Egañak eta Artzallu-
sek, ezaugarri moduan, edozein
egoeratan eta edozein tonutako
gaiekin bertsoan egiteko ahal-
mena dute, alferreko hitzik edo
betelanik egin barik, arin behar
denean arin eta sakon behar
denean sakon. Amaia Agirre da

bertso-mugimendua gertutik eza-
gutzen ez dutenentzako ezezagu-
nena. Iruditzen zait, baina, lau-
kotea borobiltzeko egokia dela.
Txispa handikoa da Agirre, kan-
taera lasaia duena eta ariketa
ezberdinetara egokitzen ondo
dakiena", dio aramaioarrak,
alboan izango dituen bertsolarien
gaineko iritzia eskatuta.

AED elkarteak antolatuta

Udalaren laguntza izan badu ere,
aurten ere AED elkartearen esku-
tik dator bertso-saioa. "Arrasa-
teko euskara elkartearen hasta-
penetako helburuetako bat da
euskal kultura eta euskaraz sor-
tutako kultura adierazpenak bul-
tzatu eta zabaltzea. Bertsolaritza
bete-bete sartzeko da esparru
horretan, eta, beraz, betidanik
izan du tokia bertsolaritzak gure
elkartearen jardueran", azaldu
du AED elkartearen Itxaro Artolak.

Bertakoak eta kanpokoak

Puntako saioa izango da
urtarrilaren 5ean (22:30)
Zubikoa kiroldegian.
Honako hauek osatzen dute
kartela: Amets eta
Maddalen Artzallus
neba-arrebek, Andoni
Egañak, Aitor Mendiluzek
eta Andoni Goitiak.

Udalaren laguntzarekin,
Oñatiko Bertso Eskola da
oraingoan ere antolatzailea,
eta taula gainean
ordezkaria izango du:
Andoni Goitia. San Migel
jaietako saioan egin zuten
lehenengoz herriko Bertso
Eskolako kideak kartelean
sartzeko apustua.



Egaña, Agirre, Artzallus eta Lujanbio izango dira astelehenean Arrasaten. | AED

Hiru txerritxoek ipuinaren moldaketa gaurkotua, haurrentzako antzerkian

A. A. | ARRASATE

Hiru txerritxoek ipuin ezaguna-
ren antzezlanak ekarriko du Glu
Glu antzerki taldeak bihar, zapa-
tua, Arrasateko Amaia antzokira
(17:00). Sarrerak 5 eurotan eros
daitezke, antzokiko leihatilan eta
Arrasate.eus atarian.

Familia giroan gozatzeko pro-
posamena da biharkoa, bereziki
3 eta 9 urte arteko haurrei eskai-

nitako antzezlanak izanda. Ohiko
istorioa badu ere oinarrian, gaur
egungo edukiak eta formak gehi-
tu dizkiote Glu Glukoek. Hori
horrela, komediaren, jolasaren,
dantzaren eta abestien bitartez
hiritar bizitza berria, dibertiga-
rria eta osasungarria posible dela
erakutsiko dute, bada, txerritxoek,
otso maltzurarekin eta bestela-
ko pertsonaiekin batera.



Oñatin egin zuten *Hiru txerritxoak eta otsoa* emanaldiaren une bat. | IMANOL SORIANO

Zabalik dago Huhezineman, film laburren zortzigarren lehiaketan, parte hartzeko epea

A. A. | ARETXABALETA

Martxoaren 17ra bitartean bidai-
daitezke Mondragon Unibertsita-
teak bultzatutako film laburren
lehiaketarako lanak. Hiru sail
izango dira oraingoan ere: Sail
Ofiziala, Basque Culinary Cen-
ter eta MUKO ikasleen lehiaketa.
Huhezinema.com atarian
kontsulta daitezke oinarriak.

Sail ofizialean sari gehiago

Lehiaketa ofizialeko sari bana-
keta berritasunetik dator: izan
ere, proiektzioarako aukeratuta-
ko hamar lan finalistek 200
euroko saria jasoko dute eta
horietako hiru lan onenen artean
banatuko dituzte gero hiru
sariak: Goiena saria, Ikusleen
Saria eta Aktore Onenarena.



Aurreztu.com

Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

PARAPENTE BIZKAIA
Parapentean hegaldia eta
bideoa Sopelako kostaldean

50€

LEHEN:
120€

DESKONTUA:
%59



ARCO IRIS GLOBOAK
Globo aerostatikoan bidaia,
brindisa hegaldian eta
jatordua tipikoa

145€

LEHEN:
170€

DESKONTUA:
% 15



AIR WORKS TEAM
Hegaldia ultrarinean eta
ekintzaren bideoa

60€

LEHEN:
186€

DESKONTUA:
%68



FOTO IKATZ
Oparitu poltsikoko
egutegi pertsonalizatuak

7€

LEHEN:
12€

DESKONTUA:
%42



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?

Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

goiena



Aitziber Eraña | Musikaria

Aitziber Eraña
Eskoriatzako plazan.

ANDONI MUXIKA

"Etorkizunean ez dut uste musikari profesional izateko aukera handirik izango dudanik"

ANDONI MUXIKA | ESKORIATZA

Gazte eskoriatzar horrek musika du bizitzaren parte. Hain du gogoko, bizitza osoan musika tresna bat izan du esku artean: pianoa, biolina eta gitarra. Horrek, zaletasun paregabea izateaz gain, sariak irabaztera eramane du; Andoaingo piano jaialdia, esate baterako. Beraz, gaztea izan arren, ibilbide polita dauka musikan.

Noiz hasi zinen musikan?

Oso goiz hasi nintzen musikan, 7 urte nituela, hain zuzen ere. Esku artean izan nuen lehen musika tresna pianoa izan zen. Izan ere, gustuko nuen tresna zen eta gaur egun ere gustukoena jarraitzen du izaten.

Nondik datorkizu zaletasun hori? Txikitatik, etxean, beti izan dut

presente musika. Gainera, amak ere oso gogoko du musika; izan ere, lehen, gitarra jotzen zuen. Uste dut amarengandik etorri zitzaidala zaletasun hori.

Gainera, musika tresna bat baino gehiago jotzen dituzu, ezta?

Bai. Lehen esan dudanez, pianoarekin hasi nintzen, asko gustatzen zitzaidalako. Baina urteak pasa ahala, beste musika tresna batzuk probatzeko gogoia izan nuen; horregatik, biolina eta gitarra espainola jotzen hasi nintzen. Lehendabizi, 11 urte nituela, gutxi gorabehera, biolina probatu nuen eta ondoren, gitarra.

Musikan hain goiz hasteak sariak irabaztera eramane zaitu, ezta?

Bai; oraingo, sari bakarra irabazi dut. Behin baino gehiagotan

aurkeztu naiz Andoainean egiten den piano jaialdira, 18 urte baino gutxiagoko 800 musika ikasle inguru batzen dituen. 2010ean urrezkoa lortu nuen eta egun berean, saria irabazi ostean, jaialdiaren klausura kontzertua egiteko aukera eman zidaten, kategoria bakoitzeko bi pertsonari bakarrik eskaintzen diete. Geroztik, ez naiz aurkeztu beste jaialdi batzuetara.

Zein da zure helburua musikarekin?

Nire helburu nagusia ondo pasatzea da; hau da, honetaz disfrutatzea. Oraingo, orkestra batean ari naiz; noski, etorkizunean gurako nuke bertan segitu, baina ez dut nire burua hori ikusten.

Non ikasten duzu musika?

Txikitatik Eskoriatzako musika eskolan ikasi izan dut. Baina

ikasketak direla-eta utzi egin izan behar dut; alegia, ondo zentratzeko ikasketetan.

Zein musika estilo jorratzen duzu?

Musika estilo klasikoa jorratzen dut jotzen ditudan musika tresna guztiekin. Eskoriatzako musika eskolako irakasleek ematen zizkidaten partiturekin ikasten dut. Baina nire kontuz ibiltzea ere gustatzen zait; Interneten, Youtuben eta halako plataformetan bideoak ikusten ditut, eta gero, praktikan jartzen dut ikasten dudana.

Orduan, horretarako, musika asko kontsumituko duzu, ezta?

Bai. Baina, nik egiten dudana musikaz gain, beste musika estilo batzuk entzutea ere gustatzen zait; esate baterako, musika elektronikoa.

Horretaz gain, baduzu bestelako zaletasunik?

Ez. Ikasketek, ingeleseko eskola partikularrek... ez didate den-

borarik uzten beste zaletasun bati denbora eskaintzeko, musikaz gain, noski.

Etorkizunean ikasketak musikarekin bateratzea pentsatu duzu?

Gustatuko litzaidake, duda barik, eta asmoa dut. Arkitektura gradu bat egitea, betiere, ikasketek onartzen badute. Erabaki hau hartu aurretik, bai, pentsatu nuen musikara bideratzea ikasketak, pianora, hain zuzen ere, baina, azkenean, benetan gehien gustatzen zaidana ikastea erabaki dut: Arkitektura, hain zuzen ere.

Orduan, etorkizunean zer asmo duzu musikarekin lotuta?

Ba, etorkizunean ez dut uste musikari profesional izateko aukera handirik izango dudanik. Baina gustatuko litzaidake zaletasun modura mantentzea musika. Izan ere, orain arte ikasi dudana guztia galtzea pena izango litzateke.

PERTSONALA

Musika estilo gogokoena: Musika elektronikoa.

Ametz bat: Gabonak New Yorken pasatzea, adibidez.

Zaletasun bat: Musika.

Liburu bat: *Perdona si te llamo amor*,

(Federico Moccia, 2008).

Leku gustukoena: Punta Cana (Dominikar Errepublika).

Musika tresna gustukoena: Pianoa.

Bizitzeko toki bat: Ameriketako Estatu Batuetako tokiren bat.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Oñati. Etxebizitza salgai erdigunean. 68 metro koadro. Bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz hornitua. 190.000 euro. 659 72 06 64

102. EROSI

Bergara. Bergara aldean baserri bat erosiko nuke. Telefonoa: 602 51 07 71

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Bilogelako etxebizitza ematen da errentan Santakurtz kalean. Prezio onean. Deitu 943 79 63 68 edo 675 00 95 77 telefono zenbakietara.

Aretxabaleta. Hiru logela, bi bainugela, sukalde-jangela eta egongela. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Ia berria. Hilean 600 euro. Informazio gehiago www.euskalnet.net/aguirre helbidean edo telefono honetan: 630 60 47 75

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Ferrerías kalean. Hiru logela, guztiz hornitua eta berokuntzarekin. 669 66 54 99

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi komun eta garaje-trastelekua. Berokuntza eta ur bero zentrala. Bizkaia Etorbidea lean. 64573 29 66 edo 943 76 03 31 (Jose Manuel)

Bergara. 50 metro koadroko apartamentua ematen da errentan Zubieta kalean. Erosteko aukera ere bai, 48.000 euroan. 679 45 57 62

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukalde hornitua eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. 606 08 39 92 edo 679 56 84 78

Eskoriatza. Goiko Kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Jantzita. Berokuntza eta igogailuarekin. 687 78 86 98

Eskoriatza. Logela bateko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Jantzita. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 70 37 51

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, gutxienez bi logelakoa. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaket. 605 68 18 49

